

**KIROLEAN EMAKUMEEN
KONTRAKO SEXU-JAZARPENA ETA
ABUSUAK PREBENITZEKO GIDA
Protokoloa egiteko jarraibideak**



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako Erakundeko Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDALIBURUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

29



EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA ETA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
GASTEIZ 2015

KIROLEAN EMAKUMEEN
KONTRAKO SEXU-JAZARPENA
ETA ABUSUAK PREBENITZEKO
GIDA. PROTOKOLOA EGITEKO JARRAIBIDEAK

IZENBURUA: “Kirolean emakumeen kontrako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida. Protokoloa egiteko jarraibideak”

EDITOREAK: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

AUTOREAK: Ainhoa Azurmendi Echegaray (Avento Consultoría, S.L.) eta Matilde Fontecha Miranda

MAKETZAILEA ETA KOORDINAZIOA: Ana Rincón

DATA: 2015eko maiatza

DESKRIBATZAILEAK: Kirola, kirolariak, sexu-jazarpena, sexu-indarkeria, araudia, gidak

DISEINU GRAFIKOA: Arrin. Comunicacion y Diseño

ISBN: 84-89630-43-7 978-84-89630-43-7

L.G.: VI 320-2015

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA	11
1.1. Sarrera	13
1.1.1. Datuak	14
1.1.2. Kiroleko indarkeria eta emakumeen kontrako indarkeria kirolean	17
1.1.3. Kirolean gizonak emakumeei eragindako sexu-jazarpena eta abusua	18
1.1.4. Gorputz-kontaktua kirolean	20
1.2. Helburuak eta metodologia	21
1.3. Definizioak	22
1.4. Legedia eta dokumentazio instituzionala	25
1.4.1. Nazioartean	26
1.4.2. Estatuan	28
1.4.3. Autonomia-erkidegoan	29
1.5. Egoera, jarrera eta portaera onartezinak	33
1.5.1. Egoera orokorrak	34
1.5.2. Hizketa bidezko eta hizketaz kanpoko komunikazioa	36
1.5.3. kontaktu fisikoa	38
1.5.4. Kirolarien gaineko ondorioak	40
1.6. Arrisku-faktoreak	42
1.7. Prebentzioa	46

2. JARDUERA-PROTOKOLOA DISEINATZEKO JARRAIBIDEAK	53
2.1. Protokoloan agertu beharko liratekeen atalak	55
2.2. Beste gako batzuk	63
3. DOKUMENTAZIOA	65
3.1. Bibliografia	67
3.2. Lotura interesgarriak	71
4. ERANSKINAK	73



AURKEZPENA

Gure gizartean, kirola da gizon-emakumeen arteko berdintasunik eza gehien nabarmentzen den esparruetako bat. Hainbat arrazoi dugu horretan laguntzaile: neska-mutikoak berdin ez gizarteratzea; kirolak atxikita dituen baloreen aurretik maskulino-femenino estereotipoak gailentzea; kirol-jardueretan gizontasuna nagusitzea; emakumeen kirolean profesionaltasunik apenas egotea; komunikabideetan eskas eta urri agertzea, eta abar.

Emakumeen aurkako indarkeria gizon-emakumeen arteko berdintasun falta egiturazkoaren erakusgarri eta erakusle da, eta, azaleratzeko duen bideetako bat, hain zuzen ere, kirolean dugu sexu-jazarpena da. Kirolean bada sexu-jazarpena eta sexu-gehiegikeria, identifikatu eta aitortu beharra dago, eta neurriak hartu, emakumeen aurkako bortxa esparru horretatik jo eta ezabatzeke, ernagai edo hauspo-haize dituen jarrera baztertzaileren aurka eginez.

Horretara dator, batez ere, gidaliburu hau; eta etorri ere Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak lagunduta dator. Bi gauza nahiko lituzke lortu: nola edo hala kirolari loturik dagoen pertsona oro jakitun egitea eta jabetuaraztea, jarrera onartezinak identifikatuz eta kirolean emakumeen aurka gertatzen diren sexu-jazarpenezko eta -gehiegikeriazko egoerei aurrea hartzeko neurriak proposatuz; eta gidalerro batzuk ematea, esparru honetan emakumeen aurkako sexu-jazarpenik eta gehiegikeriarik gertatzen bada, zer-nola egin jakiteko.


Kirolak eta jarduera fisikoek halako indarra eta balioa dute hezkuntzan, osasunaren promozioan eta komunikabideetan, derrigor izan behar dute gizartea aldatzeko eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko akuilu. Kirola egitea, emakumeentzat, ahalduntzeko bide bat ere bada. Emakumeek kirola egin ahal izatea, modalitate guztietan eta askatasunez, horixe dugu oraingoan lehia; ea gidaliburu honek laguntzen duen.



Jon Redondo Lertxundi
Gazteriako eta Kiroletako zuzendaria



Izaskun Landaida Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal
Erakundeko zuzendaria



1. **S**ENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

1.1. SARRERA

Genero desberdintasunak gizarteko arlo guztietan ematen dira; gizarte andozentrikoan bizi gara, erreferentziazat eta neurgailuzat goi-mailako gizaki kontsideratzen den gizona ardatz hartuta gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak mantentzen saiatzen dena, hainbat aspektutan oinarrituta: jakintzan, potentzialean, inteligentzian, espektatibetan, sentimenduetan eta jarrera nahiz lorpenetan. “Emakumeen kontrako indarkeria, gertatzen den tokian gertatzen dela, genero arrazoiengatik eman daitekeen diskriminazio handienaren erakusle da, eta, aldi berean, duintasuna, osotasun fisiko eta morala, eta askatasun sexuala bezalako oinarritzko beste eskubide batzuen bortxaketa argia...”(1).

Kirola, ohituraz, gizonezkoen eremua da. Sexu bakoitzari jartzen zaizkion estereotipoak bere egiteaz gain, emakumeek kirolean duten presentzia urria justifikatu eta betikotu egin du, emakumeek kirola egiteko, lehiatzeko edo esfortzu fisikoa egiteko gai ez diren ustean oinarrituta. Ehun urtetik gora igaro direnean, argi gelditu da uste horien sostengu ziren teoriak ez dutela inolako oinarri zientifikorik. Alderantziz, gaitasunari eta trebetasun fisikoei dagokienez, argi geratu da gizonezkoen ustezko nagusitasun horrek, funtsean, arrazoi kulturaletan eta heziketan duela jatorria. Hala ere, emakumeek diskriminaturik jarraitzen dute kiroleko maila guztietan. Izan ere, gaitasun fisikoak garatzeko emakumeek gaitasunik ez dutela dioen mitorek bultzatuta, gizarteak beste zenbait ideia ere legitimatu ditu: interes falta, arriskua ekiditeko joera, kiroleko arlo desberdinetan eraginkortasunik eza (kirola praktikatzean, lehiaketetan, kudeaketan, zuzendaritza-lanetan, lan teknikoetan edo epaile-lanak egitean, etab). Laburbilduz, emakumeei haurtzarotik mugatzen zaie kirolerako sarbidea, eta horrek jarduera fisikoaren efektu onuragarri eta pozgarrietatik kanpo uzten ditu. Sartzea lortzen dutenean ere, haien jarduera eta garaipenak gutxietsiak izaten dira, eta ageri-ageriko diskriminazioa jasaten dute: adibidez, kirol erakundeek baliabide gutxiago ematen dizkiete, kalitate txarragokoak, gainera.

Nazioarteko Batzorde Olinpiarrak (NBO) azaltzen duenez, kirolean emakumeek jasaten duten indarkeria errotik kentzeko berori sustatzen edo barkatzen duten jarrera diskriminatzaileak errotik desagerrarazi behar dira. Gainera, nabarmentzen du indarkeria mota hau ezezagunek, ezagunek, autoritatea baliatzen dutenek nahiz familiarrekoek burutu ohi dutela, eta, etxean, lanean, hezkuntzan zein kirol eremuetan gertatzen dela (2).

(1) Emakunde (2011). Lanean ematen den sexu-jazarpena eta sexistaren kontrako protokoloa. Eskuragarri: https://euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/adjuntos/protocolo_acoso_sexual_y_sexista_es.pdf

(2) De Frantz, Anita L. (2013). Eliminating and preventing violence against women and girls through sport. International Olympic Committee, 57th Session of the Commission on the Status of Women, 4-15 March. Eskuragarri: <http://www.olympic.org/news/eliminating-and-preventing-violence-against-women-and-girls-through-sport/194138>

Gida hau gizonen emakumeen kontra kirol arloan egindako sexu-jazarpenetara eta abusu-erata mugatuta dago. Izan ere, ikerketek aitortzen dutenez, eraso hauek burutzen dituztenak gizonen izaten dira orokorrean, eta emakume eta neskatuen esplotazioa errazten duten oso maskulinizatutako eremuetan gertatzen dira gehienetan (3).

Jarrera horiek gertakari isolatutzat hartzen badira ere, uste baino ohikoagoak izaten dira. Ezarritako balore kolektiboekin lotura estua dute, kasu honetan kirol arloko antolaketa-ohiturekin eta gizarteko botere harremanekin (4).

Deborah Brakeren iritziz (2010), kirolaren maskulinizazioa da sexu-jazarpenari buruzko araudia lan-araudiari buruzkoa baino ahulagoa egiten duena (5). Horrela, bada, kirolean gertatutako sexu-jazarpen eta abusuak kasu isolatu bezala tratatzeak sexu-jazarpen eta abusu hauek gutxiestea dakar, gizarte- eta politika-testuinguruak ezkatuz (6).

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da kirolean sexu-jazarpenera eta abusuak gertatzen direla aitortzea, eta eremu honetan gertatu ohi diren emakumeen kontrako indarkeriak errotik kentzeko neurriak hartzea.

1.1.1. DATUAK

Kanadan, Estatu Batuetan, Danimarkan, Erresuma Batuan, Txekiar Errepublikan, Frantzia, Grezia eta Norvegiar burututako ikerketek agerian utzi dute kirol eremuan emakumeek eta neskek sexu-jazarpenera eta erasoak jasaten dituztela.

— Fastingek (2012) (7) ekarritako datuen arabera, 1997 eta 2012 urteen artean Belgikan, Txekiar Errepublikan, Danimarkan, Frantzia, Alemanian, Grezia, Herbeheretan, Norvegia, Turkian eta Erresuma Batuan egindako ikerketen arteko konparazioa eginez, ki-

(3) Chroni, Stilian, et al. (2012). Prevention of sexual and gender harassment and abuse in sports. Initiatives in Europe and beyond, p. 10. Frankfurt: Deutsche Sportjugend.

(4) Chroni, Stilian, et al. (2012). op. cit.

(5) Brake, Deborah (2010). Getting in the game. Title IX and the women's sports revolution, p.208. New York and London: New York University Press.

(6) Antúnez, Marta (2009). Kirola. Beren kantsa propioetan indarkeria ezkatzen duten podioei buruzkoa. Generoa eta Feminismoari buruzko I CINIG Jardunaldietan aurkeztutako ponentzia. Teoriak eta politikak: Bigarren Sexutik gaur egungo eztabaidetara, Generoan, Humanitateetan eta Gizarte Zientzietan Diziplinarterko Ikerketa Zentroak antolatua. FaHCE, UNLP - CONICET. La Plata (Argentina), 2009ko urriaren 29a eta 30a. Eskuragarri: <http://jornadascinig.fahce.unlp.edu.ar/i2009/eje6/Antunez.pdf>

(7) Fasting, Kari (2012). What do we know about sexual harassment and abuse in sport in Europe. "Safer, better, stronger! Prevention of Sexual Harassment and Abuse in Sport" Europako Kongresuan Berlinen aurkeztutako txostena, 2012ko azaroaren 20-21ean.

rolariek jasandako sexu-jazarpen eta abusuen ehunekoa % 14 eta % 73 bitartean dago, eta sexu-abusua % 2 eta % 22 artean.

- Norwegian 2004an egindako ikerketa batek goi-mailako emakume kirolarien % 28k sexu-jazarpenen bat edo sexu-erasoren bat jasan zutela agertu zuen, baita ere kirol- edo praktika-maila desberdinetako emakume kirolarien % 45ek sexu-jazarpenen bat jasan zuela (8).
- Txekiar Errepublikan, 2005ean egindako ikerketa batek agerian utzi zuen goi mailako emakume kirolarien % 55ek, goi mailakoak ez ziren % 44k (gurean kirol-federatu bezala ezagutzen duguna, goi-mailatik beherako mailak) eta jarduera fisikoa (9) praktikatzan duten emakumeen % 30ek sexu-jazarpenen bat jasan dutela.
- Frantzia 2007 eta 2009 artean egindako ikerketa (10) batek emakumeen %10ek kirol eremuan sexu-jazarpina jasan dutela argitaratu zuen.
- Erresuma Batuan 2011n maila guztietako emakume-kirolariekin egindako ikerketa batek % 34k sexu-jazarpina eta % 5ek sexu-abusua jasan zutela argitaratu zuen (11).

Aztertutako ikerketen arabera, taldean edo bakarka praktikatzan den kirolean gertatzen diren eta irauten duten sexu-jazarpen eta abusuen artean ez dago alde handirik. Hala ere, ohituraz berez gizonekoentzako kirolak (12) direnetan sexu-jazarpen eta eraso kopuru handiagoa aurkitu da. Kirol hauetan emakumeen presentzia gutxienekoa da, eta, askotan, bakardade eta baztertze egoerak jasan behar izaten dituzte.

Espainiako prentsan kirolean gertatutako sexu-jazarpen eta abusu kasu batzuk agertzen ari dira. Esaterako, duela hogeita hamar urte hamabi eta hamabost urte bitarteko gimnasta batzuei gehiegikeriak egiteagatik salatua izan zen hautatzaile nazional baten kasua. Entrenatzailea absolbitu egin dute, delitua jada preskribatuta zegoelako.

(8) Chroni, Stiliani, et al. (2012). op. cit.

(9) Chroni, Stiliani, et al. (2012). op. cit.

(10) Décamps, Greg y Zurc Joca (2012). "Detection and prevention of sexual harassment and violence in sport", en: Chroni, Stiliani, et al., op. cit.

(11) Chroni, Stiliani, et al. (2012). op. cit.

(12) Fasting, Kari, et al. 2004). Prevalence of sexual harassment among Norwegian female elite athletes in relation to sport type. *International Review for the Sociology of Sport*, 34, 4, 373-386 or. Eskuragarri: [http://bura.brunel.ac.uk/bits-tream/2438/527/4/IRSS%2Bsport%2Bgroups%2B\(revised%2B15.3.04\).pdf](http://bura.brunel.ac.uk/bits-tream/2438/527/4/IRSS%2Bsport%2Bgroups%2B(revised%2B15.3.04).pdf)

2014 hasieran, Kataluniako (13) hiru unibertsitatetan emakume-kirolariekin eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako emakume ikasleekin egindako ikerketa baten emaitzak argitaratu dira. Datuek ondorioztatzen dutenez, emakume horiek entrenatzaileen aldetik sexu-jazarpenera nabaritzen dute, hala nola: kontaktu fisikoa, emakumeei buruzko mespretxuzko komentarioak, itxura fisikoari buruzko komentarioak, sexu-harremanak izateko proposamenak, begirada onartezinak, besteen sexu-bizitzan sartzea, etab.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ez dago emakumeek kirolean jasan izan duten edo oraindik irauten duten sexu-jazarpenera eta abusuei buruzko datu kuantitatiborik. Hala ere, gida hau egiteko elkarrizketatu (14) ditugun emakume kirolari, kirolari ohi, edota kirol eta jarduera fisikoaren edo kirol kudeaketaren eremuan diharduten emakume profesionalen aitortpenen arabera, EAEn badaude egon sexu-jazarpenera eta abusua.

Ondoren, elkarrizketa horietatik ateratako lekukotza batzuk azaltzen dira; horietako batzuek sexu-erakundeak izan dituzte, eta beste batzuek kontrol eta jazarpenera buruz dihardute. Aurrerago ikusiko den bezala, sexu-jazarpenerako arrisku faktoreak dira horiek:

“Nire igeriketa irakaslea izan zen 17 urte nituela. Gorputz-hezkuntzan lizentziatutako bukatutakoan, lana eskatzera joan nintzaion, bera kirol-elkarte garrantzitsu baten zuzendaria baitzen. Alde egitera nindoala, hormaren kontra bortizki bultzatu, eta bularrak eskuekin eusten zizkidan bitartean hauxe esan zidan: oso gustuko izan zaitut betidanik... Lasaitasuna mantendu nuen, eta askatzen ez baninduen oihuka hasiko nintzela esan nion. Askatu ninduen eta korrika atera nintzen”.

“Hamabost urte izango genituen... entrenatzaileak ipurdiko bat ematen zigun zelaira jolastera ateratzearekin geundenean...”.

“Hamalau urte nituela entrenatzaileak ia egunero deitzen zidan etxera; orain, hainbeste urte ondoren horretan pentsatzen dut, eta neure buruari esaten diot: hura ez zen normala”.

“Pisua mantendu behar genuen...; bai, beharrezkoa zen, eta berak hori eskatzeko eskubidea zuen. Baina era bortitzean esaten zuen, jendaurrean, jende askoren aurrean”.

(13) Martín, Montserrat eta Juncà Albert (2014). Sexu-jazarpenera kirolean: Kataluniako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Zientzietako graduiko ikasle-kirolarien kasua. *Heziketa Fisikoa eta Kirolak*, 115, 1, 72-81 or.

Eskuragarri: <http://www.revista-apunts.com/es/hemeroteca?article=1627>

(14) Gida hau osatze aldera Avento Aholkularitzak egindako ikerketa kualitatiboaren zati den Euskal Autonomia Erkidegoko kirolariekin eta kirolari ohiekin 2013an egindako talde dinamiketarik eta elkarrizketarik ateratako aipuak.

“Berak (entrenatzaileak) guk egin beharreko guztia erabakitzen zuen; berak planifikatzen zigun guztia, guk zer nahi genuen ez zuen kontuan izaten... nik eutsi egin nion, baina une batean erabaki nuen: edo erabakitzeko eskubidea dut eta hone-tan iritzia ematen dut, edo utzi egingo dut”.

“Beldurra genion; bere begiradarekin topo egitea ekiditen genuen... Nik negar egiten nuen tratatzen gintuen eragatik”.

“Berak beti esaten zigun inork ez zuela kirola bere erruz utzi. Berarengana joan eta banan-banan bere erruz utzi zuten guztien izenak esateko gogoia ematen dit”.

Horrela, nahiz eta gure inguru hurbilean -erkidegoan edo estatuan- emakumeek kirolean jasandako sexu-jazarpen eta abusuen existentziari buruzko datuak oso urriak izan, ez da ulertu behar jarrera onartezin hauek existitzen ez direnik.

1.1.2 KIROLEKO INDARKERIA ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KIROLEAN

Kirolean emandako indarkeria, batez ere goi-mailako kirol-espektakulu jendetsuetan ematen dena, kirolaren mundu konplexuaren parte da, bere interesen parte, komunikabideekin duen harremanen parte, etab. Kirolean ematen diren indarkeria-adierazpenek hainbat funtzio betetzen dituzte, hainbat gairekin lotura dutenak: aisialdiaren erabilerarekin, zenbait aspektu psiko-afektiboren kanalizazioarekin, edota botere publikoek gizartearengan duten kontrolarekin -horiek erabakitzen eta baimentzen dute eremu txiki batean milaka lagun elkartzea-.

Hala ere, kirolean gertatzen den neska eta emakumeen kontrako sexu-jazarpena eta abusa emakumeen kontrako indarkeria dira, zalantzarik gabe. Gainera, indarkeria hau emakume izateagatik soilik jasaten dute. Indarkeria adierazpen hauek mundu-mailako arazo estruktural baten parte dira, edozein erakunde edo gizarte-jarrera zikintzen dutelako, eta gizonak emakumeak behe-mailako gizakitzat hartu eta haiekiko edozein eskubide dutelako ustean oinarritzen dira.

Hori dela-eta, bi gertakariak azaltzeko indarkeria terminoa erabiltzen bada ere, kirol espektakuluetan ematen den indarkeria beste edozein ospakizunetan ematen denarekin pareka daiteke, esaterako jai tradizional batzuetan gertatzen denarekin; baina, sekula ez emakumeen kontra ematen den indarkeriarekin.

Kirol arloan emakumeen kontrako indarkeriari buruzko edozein ikerketa edo ikasketa-saia-kera baliorik gabe geldituko litzateke kirolari lotutako indarkeria soiltzat hartuko balitz. Dagokigun gaian aurrera egitea eragotziko ligukeen akats larri bat izango litzateke.

1.1.3. KIROLEAN GIZONEK EMAKUMEEI ERAGINDAKO SEXU-JAZARPENA ETA ABUSUA

Gida honek sexu bereko pertsonen artean gertatzen diren sexu-jazarpenak eta abusua ukatzen ez baditu ere, gizonak emakumeen kontra kirolean egiten dituzten sexu-jazarpenak eta abusua hartu ditu kontuan, portaera horiek egiturazko arazo sozial baten zati direlako: emakumeak mendeko gizakitzat hartzen dira, gure gizartean genero desberdintasunak mantenduz. Sexu-jazarpenak eta abusuek emakumeen giza-eskubideak urratzen dituzte; neurri handiago edo txikiago batean, gizarteko arlo desberdinetan ematen dira, batez ere maskulinizatuenean, eta kirol mundua gune horietako bat da, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, ondorioztatzen da sexu-jazarpena, jazarpen sexista eta abusua jasateko arrisku handiena duten subjektu nagusiak emakume kirolariak direla. Hala ere, entrenatzaileak, arbitroak, zuzendaritzakoak eta kirol arloko beste funtzio batzuk betetzen dituzten emakumeek ere erabil ditzakete gida honetako azalpenak, gerta dakizkiekeen edo sufritzen ari diren sexu-eraso eta jazarpen-egoerak identifikatzeko.

NBO(15)ren arabera, gizonetako taldekideak, zuzendaritzakoak, langile mediko-zientifikoak etab. erabat baztertzeko ez badira ere, entrenatzailea da indarkeria-ekintza hauen egile nagusia, emakume kirolariarekin harreman estua edukitzeaz gain haien erreferente nagusia ere badelako.

Emakume kirolariak beren entrenatzaileekin entrenamenduetan pasatzen duten denborak, lehiaketek eta bidaiek intentsitate handiko harremanak garatzea errazten dute. Harreman horren intentsitateak emakume kirolariak ahuldu egiten ditu, sexu-jazarpena eta abusua jasateko unean; emakume kirolariak konfiantza osoa dute entrenatzailearengan, laguntzaile emozionaltzat eta hezitzailetzat dute-eta. Horrek jarrera onargarria zein den eta zein ez den identifikatzea zail dezake (16).

Marta Antunezen arabera (2009), entrenatzaileak emakume kirolariarekiko aitatiar edo autoritatez jokatzeko duenez, autoritatea duen gizonetako batek eragindako abusua "are da okerragoa, emakume kirolariak eskaintzen dion gorputz-konfiantzagatik eta gurasoek eskaintzen dioten konfiantza osoagatik" (17).

Horrez gain, egile horren iritziz: "Entrenatzailearen boterea ez da mugatzen emakume kirolariak emaitza gorenak lortze aldera proposatzen dituen ekintzetara, selekzioak osatzeko edo

(15) IOC Consensus Statement on "Sexual Harassment & Abuse in Sport" (2007ko otsailaren 8a).
Eskuragarri: http://www.olympic.org/assets/importednews/documents/en_report_1125.pdf

(16) Brake, Deborah (2010). op. cit. 216 or.

(17) Antúñez, Marta (2009). op.cit. eta Fasting, Kari (2012). op. cit.

txapelketetan parte hartzeko atletak aukeratzen dituenean ere baliatzen du botere hori. Horrela, emakume kirolaria erabaki horien jasotzaile xume izatera pasatzen da, eta emaitza pertsonal hobe lortzera bideratutako entrenamendu-lanak -eta baita hauekiko konfiantza osoa ere- entrenatzailearen eskuetan gelditzen da (18).

Aurrerago azaldutako guztiagatik, gida honetan gizonezko entrenatzailea hartzen da sexu-jazarpenak, sexismoa eta sexu-erasoak burutzeko subjektu nagusitzat. Horrek ez du esan nahi identifikatu diren hainbat jarrera eta jokabide kirol eremuko beste gizonezko batzuek ere ezin dezaketenik burutu. Marta Antúnezek (2009) (19) gizonezko zuzendari eta kazetari espezializatuak seinalatzen ditu, dela konplizitateagatik -egoerak minimizatuz edo saihestuz-, dela emakume kirolariak erruduntzat hartzeko tendentziagatik, edo dela emakume kirolarien janzkera edo jarrerak azpimarratzeagatik.

Azken urteotan emakume kirolarien gorputz-irudia sexualizatzeko joera argia dago. Haientzat edertasuna kirol lorpenak baino garrantzitsuagoa delako ustea ezartzen ari da; izan ere, komunikabideek emakumeen kirolari eskaintzen dioten denbora, gehienetan, emakume kirolari eder eta sexiei eskainitakoa da. Estereotipo femeninoa duten zenbait edertasun-kanoni lotutako irudia ezarri zaie emakume kirolariei, eta, horrenbestez, geroz eta gehiago ikusten ditugu makillatuta lehiatzen, edo esfortzu fisiko handia eskatzen duten haien jarduerekin bat ez datozen arropa ez-koherenteak janzten.

Aipagarria da federazio batzuek geroz eta arropa txikiagoa erabiltzera behartzen dituztela: kirolarien gorputz zati handia agerian uzten duen edo bere forma nabarmentzen duen arropa, hain zuzen.

Kirol arloko sexu-jazarpenarekin eta jazarpen sexistarekin, eta baita ere maskulinizazioarekin harremana duen aipatzeko moduko beste alderdi bat leku hauetako ohiko hizkera da. Hizkera hori estereotipo sexisten erreproduktzio sistematikoagatik bereizten da, betiere hitz zikinez eta emakumeak gutxiesten dituzten adierazpenez beteta. Ahozko jarrera horiek pertsonen duintasunaren eta integritate fisiko eta psikologikoaren kontrako eraso gisa tipifikatuta daude indarrean dagoen erkidegoko araudian. Jarrera horiek, gainera, jarduera -kasu honetan kirol-jarduera- garatzeko baldintzen degradazioa ekar dezakete.

(18) Antúnez, Marta (2009). op. cit.

(19) Antúnez, Marta (2009). op. cit.

1.1.4. GORPUTZ-KONTAKTUA KIROLEAN

Kirol arloarekin harremana duten pertsonen arteko (kirolariak, teknikariak, etab.) gorputz-kontaktua, normalean, gainontzeko biztanleriaren artekoa baino desinhibituagoa izaten da, eta aspektu desberdinetan antzeman daiteke:

- Kirol-jarduera bera burutzeko beharrezkoa da gorputzaren erabilera, eta kasu askotan, eusteak, kargak eta kooperaziozko edo oposiziozko gorputz-jardunak ere baliatzen dira: presio eta blokeoetatik intentsitate handiko txokeetarainoko gutzia, esaterako.
- Prestakuntza fisikoa edo teknikoak zuzentzen duten pertsonak ukitu egiten dute keinu bat zuzendu behar denean; mugimenduak optimizatzeke behar diren sentsazio kinestesikoak asimilatzen laguntzen dute, horretarako karga edo kontakturako mugimenduen antzeko jarduera teknikoak burututa.

“Gorputz kontaktua funtsezkoa da kiroleko jarduera-fisiko guztietan; norberaren errendimendua hobetzeko behar-beharrezkoak dira gorputz-mugimenduak, eta, mugimendu horiek, ezinbestean, bai kirolarien eta entrenatzaileen, bai gurasoen, bai mediku taldekoen, eta bai beste hainbaten arteko kontaktu estua eskatzen dute. Ia kirol guztietan ematen dio entrenatzaileak jarraibideren bat kirolariari, kontaktu fisikoa baliatuta, ariketa edo lana zuzen burutzeko posizio egokia lortzeko” (20).

- Poztasuna adierazten duten espresioak ezin dira gorputz kontakturik gabe ulertu; besarkadak, txaloak, kargak edo txokeak unean-uneko ondo egindakoren bat edo azken lorpen bat ospatzeko erabiltzen diren keinuak dira.

“Ukitzea, zapladatxoak ematea, besarkatzea... kirolaren jarrera unibertsalaren parte dira. Garrantzitsua da hainbat egoeratan sor daitezkeen emozio gogorrak adierazteko eta horiei aurre egiteko balio izatea. Emozioei aurre egitea beharrezkoa da haur, gazte zein helduen garapenean. Kontaktua fisikorik gabe, poztasun adierazpenak ez lirateke gauza bera izango, ezta taldekide izateak sortzen dituen sentimenduak adierazteko modua ere” (21).

(20) Moldatua: Consell Català de l'Esport (2005). Sexu-jazarpena kirolean. Pertsona helduentzako gida. [Finlandiako Kirol Federazioak jazarpenari buruz argitaratutako Gidaren itzulpena, 2002.]. Eskuragarri: <http://www.igualdad.ull.es/archivos/documentacion/gu%C3%ADa%20para%20prevenir%20el%20acoso%20sexual%20en%20el%20deporte.pdf>

(21) Moldatua: Consell Català de l'Esport (2005). op. cit.

- Aldagelak eta dutxak konpartitzen dituztenek haien gorputz biluziak naturaltasunez erakusteko joeran ere antzematen da. Ariketa fisikoa egiteak izerdia eragiten du; hortaz, arropa aldatzea eta dutxa hartzea kirola egitearekin lotu-lotuta daude.

Gida honek ez du helburutzat, inondik inora ere, kirolak berezkoa duen harreman fisikoa zailantzan jartzea; beste behin ere, argi adierazten du ukitzea, besarkatzea, beste pertsona bati heltzea, etab. poztasunezko espresio naturalak direla. Hala ere, ez dira beste pertsona batzuekin izandako ukipenak norberaren beharrak asetzeko erabili behar, ez fisikoak, ez psikologikoak, ezta emozionalak ere. Garrantzitsua da gure kulturaren zein jarrera den onargarria eta zein ez den zehaztea, eta horri mugak ezartzea; eta, jakina, kirol arloan sexu-jazarpenak edo sexu-abusuak izan daitezkeenak identifikatzen jakitea.

1.2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Gida honek kirol arloan emakumeen kontra izaten den indarkeria desagerrarazten laguntzea du azken helburu; hain zuzen ere, neskatoek eta emakumeek kirola burutu ahal izatea, haien autonomia eta ongizatea garatu dezaketen inguru seguru eta osasuntsu batean. Horretarako, ezinbestekoa da kirola -hastapenetakoa zein goi mailakoa- sexu-jazarpenetatik eta sexu-abusuetatik libre dagoen eremu bihurtzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuta.

Emakume kirolarien segurtasuna, osasuna eta ongizatea zaintzea kirol-munduari lotutako pertsona guztien erantzukizuna da. Erantzukizun horien artean daude kirolean ematen diren jazarpen- eta abusu-kasuak prebenitzea, eta horiei aurre egiteko babes- eta jarduera-neurriak hartzea. Betekizun hauek egoki burutze aldera, behar-beharrezkoa da kirolariak (bai emakumeak bai gizonak), eta kirol arloko zuzendari, teknikari, mediku eta gainontzeko agente guztiak sentsibilizatzea eta trebatzea. Beraz, horiei guztiei zuzenduta dago gidaliburu hau. Bestalde, sexu-jazarpenaren eta abusuen aurkako protokoloak lantzeko ematen diren jarraibideak bereziki kirol elkarteei zuzenduta daude, eta horien erantzukizuna izango da garatzea eta inplantatzea.

Horrela, bada, gida honek helburu bikoitza edukiko du:

- Kirolarekin zerikusia duten pertsona guztiak trebatzen eta sentsibilizatzen laguntzea, onartzeinak diren jokabideak identifikatuz. Eta, era berean, kirol arloan emakumeen aurkako sexu-jazarpen eta abusu egoerak prebenitzeko neurriak proposatzea.
- Esparru honetan, emakumezkoen aurkako jazarpen- eta abusu-kasuetan esku hartzeko aktuazio-protokoloak burutzeko jarraibideak ematea.

Dokumentu hau osatzeko erabili den metodologiak lau fase izan ditu:

- 1.) Orain arteko dokumentazioa berrikusi da, eta hainbat herrialdetan kirol esparruan gertatu diren emakumeen aurkako sexu-jazarpenari eta abusuei buruzko ikerketak aztertu dira.
- 2.) Zenbait elkarrizketa eta talde-dinamika garatu dira (EAEn burututakoak): emakumezko kirolariekin, kirolari ohiekin, eta jarduera-fisikoaren eta kirolaren zientzietan zein kirol-kudeaketan adituak diren emakumeekin. Xedea izan da beste herrialde batzuetan gertatutako sexu-jazarpen eta abusu-egoerak, jarrerak eta portaerak kontrastatzea, eta, era berean, gure inguru geografiko eta kulturalean antzeko jokabiderik dagoen ezagutzea, gidaliburuan nola kokatu aztertzeko.
- 3.) Kirolean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko legeria eta dokumentazioa aztertu da. Horren xedea da: kirolean sexu-jazarpenari eta abusuei aurre egiteko protokoloa garatze aldera erreferentziazko marko-arautzailea zehaztea.
- 4.) Aztertu diren dokumentuetatik informazio esanguratsuen aukeratu eta laburbildu ondoren, gidaliburua eta jarduera-protokoloak lantzeko jarraibideak idatzi dira.

1.3. DEFINIZIOAK

Jarraian, gida honek aipatzen dituen kirol esparruko sexu-jazarpenei eta abusuei buruzko terminoen definizioa ematen da. Termino hauetako zenbait dagoeneko definituta daude indarrean den erkidegoko egungo araudian, eta beste hainbat Nazioarteko Batzorde Olinpiarren nazioartean onartu ditu.

Emakumeen aurkako indarkeria

“...sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan. ” (22).

(22) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. EHAA, 42, 2005eko martxoaren 2koa.

Jazarpen sexista eta sexu-jazarpena

“...jazarpen sexista hau izango da: lanean, nahi ez duen pertsona batekin, eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, baldin eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada. Jokabide hori sexuala bada, sexu-jazarpena izango da.” (23).

Sexu-abusuak kirolean

Sexu-abusia pertsona edo talde batekiko botere- eta konfiantza-abusuzko jokabide bat da -hitzezkoa, hitzik gabekoa edo fisikoa-, sexu-konnotazioak dituena. Nahita edo nahigabe eragin daiteke. Sexu-abusuak baimendu gabeko sexu-jardun bat, edo baimenik eman ezin den bat (adingabeko neskatoen kasuan) dakar berekin.

Gehienetan, emakume kirolariak sexu-jazarpena edo abusua jasaten ari direla konturatzen dira zerbait umiliagarria eta iraingarria dela sentitzen dutelako; beste era batean esanda, nahi ez duten zerbait delako. Halaber, batzuetan kirolaria ez da gertatzen ari denaz jabetzen, jazar-tzaileari lotuta geratzen da-eta, “grooming” prozesua bitarteko (prestatu, biktimarengana gerturatu, atzeman) (24).

Grooming-a

NBOren arabera, “grooming” prozesuak (prestatu, gerturatu, erakarri) lau fase ditu (25):

- Biktima izan daitekeena aukeratzea:
 - Aztertzea zein kirolari den erraz erasotzekoa.
 - Uneak bilatzea, pertsona hori konfiantzazkoa, nabarmentzen ez dena, edo sekretuak gordetzen dituena den jakiteko.
 - Egiaztatzea pertsona sentibera dela.
 - Haren lagun bihurtzea.
 - Atsegina izatea.

- Haren konfiantza eskuratzea eta adiskide egitea:
 - Berezi sentiaraztea.
 - Harekin denbora ematea.

(23) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. EHAA, 42, 2005eko martxoaren 2koa.

(24) Nazioarteko Batzorde Olinpiarra: <http://www.olympic.org/sha?tab=gender-harassment>

(25) Nazioarteko Batzorde Olinpiarra: <http://www.olympic.org/sha?tab=gender-harassment>, Brackenridge-tik aterea, C.H. (2001). Spoilsports: Understanding and preventing sexual exploitation in sport. London: Routledge, 35.or.

- Entzutea.
 - Saiatua izatea.
 - Topaketa bakoitzerako gutxieneko baldintzak ezartzea.
 - Negoziatzen hastea: "Zuk hau egin behar duzu, nik beste hori egin dut-eta".
- Isolamendua eta kontrola garatzea; leialtasuna eraikitzea:
- Neskatoari haren antzeko lagunekin egoten ez uztea, edo haren adiskideak eta sostengua mespretxatzea.
 - Soilik amarenganako, aitarenganako edo tutorenganako konfiantza baimentzea, baina sekula ere ez lagunenganakoa edo beste pertsona batzueganakoa.
 - Itxaropenak sortzean inkongruentea eta anbigua izatea, eta emakume kirolariari agiri-ka egitean, edo zigortzean, irizpiderik gabe jokatzeko. Horrek zalantza eta antsietatea eragingo dizkio kirolariari, ez duelako behar besteko arreta jasotzen.
 - Behin eta berriz emakume kirolariaren konpromisoa eta leialtasuna egiaztatzea, galderak eta itaunketak eginda.
- Sexu-abusuari ekitea, eta biktimaren isiltasuna bermatzea:
- Apurka-apurka sexu-muga anbiguoetan sartu-irtenak egitea.
 - Emakume kirolariak aurre egiten badio hura engainatzea, "azkenekoan ez zitzaizun axola" esanez.
 - Laguntzeko eskatzea: "neurea zara, egin dezakezun gutxienekoa da".
 - Babesa eskaintzea: "ez dut ezer esango, gure sekretu txikia izango da".
 - Biktimaren izen ona zikintzea, beste aukerarik gabe egoera horretan jarraitzera behartuz: "gainontzekoek ez dute ulertuko", "ez dizu inork sinetsiko".
 - Kirolariari mehatxu egitea: "norbaiti kontatuz gero, min emango dizut", "ardura dizun norbaiti min emango diot", "taldetik botako zaitut".

Hasiberri-sariak

Hasiberri-sariak ohiturazko jokabideak dira, eta ejertzituan, ikastetxe nagusietan, kirol taldeetan, etab. eman ohi dira. Kide berriak inimizitate-ekintza sinbolikoak egitera behartzean datza. Sarritan, taldekideek egindako ekintza horiek (talde berean berriek baino denbora gehiago eramateak ematen dien aginpideak babestuta egin ohi dira) umiliagarriak eta iraingarriak izaten dira, eta sexu-konnotazio garbia izaten dute.

NBOrentzat (26) kirolean ematen diren hasiberri-sariak taldekide berriek taldean onartuak izate aldera bete beharreko igarotze-erritualak izaten dira. Sarritan, pertsona heldu baten gain-

(26) Nazioarteko Batzorde Olinpiarra: <http://www.olympic.org/sha?tab=gender-harassment>

begiratze faltagatik gertatzen dira, eta alkoholaren kontsumoa ere tartean izan ohi da. Halaber, erritual horiek sarritan nahi ez den sexu-aktibitate bat eragiten dute.

Lekukoak

Lekuko deitzen zaie emakume kirolari bat sexu-abusuak jasaten ari den susmoa edo eza-gutza izan arren, ezer ere egiten ez duten horiei. Jarrera pasiboan, eskurik ez hartzearen, ukazioen edo kirol arloan erabakiak hartzeko eskumena duten postuetan dauden pertsonen isiltasunaren eraginez, jazarpenenaren eta sexu-abusuen eragin psikologikoak handiagoak izaten dira. Konplizeen gelditasunak, portaera horiek legezkoak eta gizartean onartuak diren ustea sorrarazten dute jazarpena eta sexu-abusua jasan duten emakumeengan, eta, beraz, pentsatzen dute kirol esparruko pertsonak ez dutela ahalmenik gai horietaz hitz egiteko, eta are guxtiago jokabideok errotik desagerrarazteko (27).

1.4. LEGEDIA ETA DOKUMENTAZIO INSTITUZIONALA

Gure kulturen emakumeen aurkako indarkeria kontu pribatutzat hartu izan dugu beti, eta isildua eta sozialki onartua izan da. Baina, azken urteotan, emakumeen aurkako indarkeriak gaitzespena eta alarma soziala eragiten ditu. Emakumeen eskubideek izan duten aurrerabidearen adierazle den hau ez zen posible izango gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko legedirik egin ez balitz. Izan ere, ekintza bat delitutzat jotzen den unetik aurrera bilakatzen da onartezin gizartearentzat.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari, eta emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, egun bada nazioarteko, estatuko zein autonomia-erkidegoko araudi bat. Hain zuzen ere, kirol esparruko sexu-jazarpenari eta abusuari dagokionez, araudi hori da erreferentziatzeko marko arautzailea.

Legezko dokumentu hauek prebentziozko eta jokabidezko zenbait aspektu biltzen dute, sexu-diskriminazioa errotik desagerrarazteko: emakumeak haien aurkako hainbat indarkeria motaz jabetzea, heziketa bidezko esku-hartzea, osasuna, arazoaren kausak eta ondorioak zehazteko ikerketak, emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan tartean egon eta esku-hartu behar duten pertsonak trebatzea, etab.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko araudia, gutxinaka bada ere, ari da aplikatzen beste esparru batzuetako legedietan. Hala ere, nazioarteko neurri batzuez gain, es-

(27) Nazioarteko Batzorde Olinpiarra: <http://www.olympic.org/sha?tab=gender-harassment>

tatu- eta autonomia-mailako kirol esparruetan ez dago emakumeen aurkako sexu-jazarpenari eta abusuei aurre egiteko berariazko araudirik. Halaber, egungo autonomia-legediak badu nahikoa zabal eta irekia den marko bat, kirol esparruan emakumeak sexu-jazarpenetik eta abusetatik babesteko berariazko neurriak garatzeko bestekoa.

Jarraian, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, emakumeen aurkako indarkeriarekin eta kirolarekin lotutako araudien eta dokumentu-instituzionalen zerrenda dator zehaztuta. Gidaliburu hau egiteko baliatu diren dokumentu hauek legegintzako erreferentziazko markoa osatzen dute, eta, hain zuzen ere, kirol esparruan emakumeek jasaten duten sexu-jazarpenaren eta abusuen aurkako protokoloa eratzeko jarraibideak legitimatzeko balio dute.

1.4.1. NAZIOARTEAN

Nazio Batuen Erakundeak, 1995eko Emakumeari Buruzko Mundu Mailako IV. Konferentzian, aitortu zuen: "emakumeen kontrako indarkeria oztopo da berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko bidean, eta giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak gauzatzeko aukerak murrizten dizkie". Indarkeria mota honi emakumeen eta gizonen artean historikoki hain desorekatuak izan diren botere-harremanen adierazpen bat besterik ez dela irizten diote. Halaber, baldintzatzaile soziokulturalen eraginez emakumeek jasandako erasoak aipatzen ditu. Horien iriziz, emakumea kokatzen dute "gizonarekiko mendekotasun egoera batean, eta pertsonen arteko harremanak gauzatzen diren oinarrizko hiru esparruetan antzematen da: bikote-harremanetan tratatu-txarrak, gizarte-bizitzan sexu-erasoak eta lan-arloko jazarpena" (28).

2009. urtean Europako Parlamentuak emakumeen kontrako indarkeria baztertzeko Ebazpena (29) eman zuen, honakoa eskatuz: "Batzordeak eta Estatu kideek emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko neurriak hartzeko, bereziki prebentzio-jarduerak eta emakumeen aurkako indarkeria motei buruzko sentsibilizazio kanpainak baliatuta".

1992an, Europako Kontseiluko Estatu Kideen Ministro Kontseiluak Kiroleko Etika Kodearen (30) R (92) 14 REV (2011ko maiatzean berrikusia) Gomendioa bere egin zuen. Kirol-erakundeei dagokienez, Europako Kontseiluak agintzen die "marko orokor batean adingabeak, gazteak eta emakumeak lagundu eta babeste aldera beharrezko bermeak ezartzeko ardura hartzea, guztia aipatu taldeak sexu-jazarpenetik eta abusetatik babesteko, eta adingabeen esplotazioari aurre egiteko".

(28) 1. Ebazpena. Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma. Eskuragarri: <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/BDPfA%20S.pdf>

(29) 2009ko azaroaren 26ko Ebazpena, emakumearen aurkako indarkeria erroitik kentzearena. Eskuragarri: <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2009-0098+0+DOC+XML+V0//ES>

(30) Eskuragarri: http://www.coe.int/t/dg4/epas/resources/texts/Rec%2892%2914rev_en.pdf

2002. urtean, emakumeak eta kirolari buruzko Europako Parlamentuaren 2002/2880/INI (31) ebazpenak 40. puntuan “Estatu kideak eta federazioak kirolean sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko eta errotik kentzeko neurriak hartzera premiatzen ditu, horretarako hainbat neurri hartuta: laneko sexu-jazarpenari buruzko legedia aplikatzea, atletak eta haien gurasoak abusu-arriskuen zein eskura dituzten baliabideen jakitun jartzea, kirol erakundeetako langileei bera-riazko trebakuntza ematea, eta, kasuak hala eskatzen duenean, jarraipen penala eta diszipli-nazkoa egitea”.

2007. urtean NBOk bere egin zuen *Kirolean Sexu-jazarpenari eta Abusuei buruzko Adostasun Adierazpena* (32). Adierazpen horrek, prebentzio politika eraginkorren bitartez, eta kirolarien inguruko pertsonak gai hauetaz sensibiltzatuz, emakume kirolarien osasuna eta ba-besa hobetzea zuen helburu. Adierazpenak definizio bat ematen dio arazoari, kirolarientzako arrisku-egoerak eta ondorioak barne; halaber, kirola guztiontzat seguruagoa eta osasuntsua-goia izate aldera, zenbait interbentzio-estrategia ere planteatzen ditu. Hona hemen zehaztuta Adierazpen honetan NBOk kirol-erakunde guztiei egiten dizkien gomendioak:

- Sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko politikak eta prozedurak garatzea.
- Politika eta prozedura horien inplementazioa gainbegiratzea.
- Politika horien eragina ebaluatzea, sexu-jazarpena eta abusuak identifikatzeko eta murriz-teko.
- Sexu-jazarpenari eta abusuei buruzko trebakuntza eta gaikuntza programak garatzea, da-gokion kirolean.
- Bidezkoa, errespetuzkoa eta etikoa den lidergoa sustatzea, eta eredu jartzea.
- Sexu-jazarpena eta abusuak prebenitze aldera, gurasoekin eta tutoreekin elkarlana susta-tzea.
- Gai honen inguruko ikerketak sustatzea eta finantzatzea.

Akordio hori onartu zenetik NBOk hainbat ekimen (33) burutu ditu, bai kirolean sexu-jazar-penak eta abusuak prebenitzeko, bai kirol-esparruko eragile desberdinak gai honek duen ga-rantziaz sensibiltzatzeko. 2012an zenbait bideo (34) aurkeztu zituen, kirolariei eta federazioei kirol-esparruetatik baztertu nahi diren portaera hauek errotik kentzen laguntzeko.

(31) Eskuragarri: <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?type=REPORT&reference=A5-2003-0167&language=ES>

(32) IOC Consensus Statement on “Sexual Harassment & Abuse in Sport” (2007ko otsailaren 8a).
Eskuragarri: http://www.olympic.org/assets/importednews/documents/en_report_1125.pdf

(33) <http://www.olympic.org/sha?tab=what-is-sha>

(34) <http://sha.olympic.org/home.html>

Europako batzordeak, 2014ko otsailean, kirolean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekintza-estrategikoen proposamena (35) aurkeztu zuen, 2014-2020 tarterako. Dokumentu horretan adierazten denez, Europar Batasuneko herrialde guztiek garatu beharko lituzkete kirolean sexu-jazarpena eta abusuak debekatzea helburu duten araudiak (36).

1.4.2. ESTATUAN

Espainiako Batzorde Olinpikoak 2007an NBOk onartutako Ebazpena zabaldu (37) bazuen ere, Espainiako kirol esparruan arazo hau identifikatzeko eta konpontze bidean jartzeko ez da berriazko programarik burutu.

Kirolean gertatzen den sexu-jazarpenaren inguruan hartutako prebentzio eta/edo sentsibilizazio neurriak honako hauek izan dira: 2005ean Consell Català de l'Esportek argitaratutako gidaliburu (38) bat (2002an Finlandian idatzitako dokumentu baten itzulpena), eta Kirol Kontseilu Gorenak (39) 2003an antolatutako *Seminario sobre Prevención del Abuso Sexual Infantil en el Deporte* delakoa. Oraintsu, 2014ko maiatzean, Kirol Kontseilu Gorenak Protokolo bat aurkeztu du: *Protocolo (40) para la prevención, detección y actuación frente al acoso y el abuso sexual en el Centro de Alto Rendimiento de Madrid (CAR)* delakoa.

Azken urteotan, Espainiako zuzenbidean legegintza-marko bat garatuz joan da, bai gizon eta emakumeen arteko berdintasun gaitan bai emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan (41). Halaber, kirolean ematen den sexu-jazarpenari eta abusuei dagokienez, nabarmendu beharrekoak dira: alde batetik, martxoaren 22ko 3/2207 Lege Organikoa (42), emakume

(35) Gender Equality in Sport. Proposal for Strategic Actions 2014-2020.

Disponible en: http://ec.europa.eu/sport/events/2013/documents/20131203-gender/final-proposal-1802_en.pdf

(36) Dokumentu honek kirolean sexu-jazarpenaren eta abusuen aurkako aktuzio-prozedurak ezartzera premiatzen ditu kirol erakundeak. Halaber, kirolarekin zerikusia duten pertsona guztiak, batez ere emakume kirolariak, trebatzeak duen garrantzia azpimarratzen du.

(37) Comisión Mujer y Deporte del Comité Olímpico Español, web atalean eskuragarri:

http://www.mujerydeporte.org/articulos/ver_articulo.asp?Id_noticia=132&Titulo_not=EI+COI+admite+que+hay+acoso+sexual+en+el+deporte+de+%E9lite

(38) Consell Català de l'Esport (2005). op. cit.

(39) <http://www.csd.gob.es/csd/salud/seminario-sobre-prevencion-del-abuso-sexual-infantil-en-el-deporte/>

(40) Protokolo honen triptikoa eskuragarri: <http://www.csd.gob.es/csd/estaticos/noticias/Triptico-Abusos-1.pdf>

(41) 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, herritarren segurtasunaren, etxeko indarkeriaren eta atzerritarrek gizarteratzearen arloan neurri zehatzak hartzeari buruzkoa; 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa. Horren bidez aldatu zen Zigor Kodeko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa; 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko Indarkeriaren Biktimak babesteko Agindua arautu duena; eta, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen benetako berdintasunari buruzkoa.

(42) Eskuragarri: <http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/23/pdfs/A12611-12645.pdf>

eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzkoa. Lege horretan, emakumeen aurkako edozein indarkeria mota baztertzeko beharra azpimarratzen da (14. artikulua), eta, kirol-programa publiko guztiak derrigortzen ditu haien diseinuan eta egikaritzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa jasotzera (29.-1 artikulua).

Bestalde, Zigor Kodeko (43) azaroaren 23ko 1995/10 Lege Organikoak delitutzat tipifikatzen ditu sexu-jazarpena eta sexu-abusuak, eta, gainera, biktimarekiko harreman-esparru desberdinak zehazten ditu: lan-harremanak, irakaskuntza-harremanak eta zerbitzuak prestatzerakoan gauzatutakoak (1. eranskina).

1.4.3. AUTONOMIA-ERKIDEGOAN

EAEan, kirol-esparruan, gaur egun ez dago sexu-jazarpenari eta abusuei buruzko berariazko araudirik. Hala ere, bada emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko legedi bat, eta bertan aipatzen dira emakumeen aurkako indarkeria, lan-esparruko sexu-jazarpenak eta baita kirolean egiten diren diskriminazioak ere; araudi horrek kirol-esparruko sexu-jazarpenak eta abusuak prebenitzeko eta haien aurka jarduteko balio du.

Hala ere, egun indarrean den EAEko marko legalak kirol-esparruan jasaten dituzten sexu-jazarpen eta abusetatik partzialki baino ez ditu babesten emakumeak. Izan ere, babes hori es-tuki lotuta dago emakume kirolariek edo gainontzeko emakumeek (zuzendariak, teknikariak, medikuak, etab.) kirol entitatearekin duten harremanarekin.

Horrela, kirol-entitatearen batekin lan-kontratua izenpetuta duten emakumeek ustezko sexu-jazarpen eta abusu kasuak jasanez gero, egun indarrean den lan-arloko legeriak babestuko dituen bitartean, ez da berdín gertatuko lan-kontraturik ez dutenekin (44). Kirol-esparruan anto-lakuntza-egiturekin loturak edukitzeko bide eta modu ugari daude: lizentziak, kontratu profesionalak, egoera irregularrak, lotura formalik eza, boluntarioak, etab. Idiosinkrasia honek, arategi desberdinetara jotzera behartzen du, egoera bakoitza arautuko duen erreferentziazko marko bat zehaztu nahi bada behintzat.

(43) Eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/pdf/1995/BOE-A-1995-25444-consolidado.pdf>

(44) Emakunde (2011). op. cit.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (45) sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako indarkeria definitzen eta arautzen ditu (2. eranskina), eta gai honen inguruan prebentzioak eta herritarren sentsibilizazioak duen garrantzia nabarmentzen du.

Kirolean ematen diren sexu-jazarpenari eta abusuari aurre egiteko sentsibilizazioak eta prebentzioak gain, ezinbestekoa da heziketarekin zerikusia duten pertsona guztiak, eta bereziki kirol-hezkuntzaz arduratzen diren irakasleak (irakasleak eta kirol-monitoreak), emakumeen aurkako indarkeria mota guztien kontra inplikatzeko. Horretarako, trebakuntza, balizko jazarpen eta abusu kasuen detekzioa eta komunikazioa baliatuko dira. 4/2005 Legearen 31. artikulua araberak, "Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organoei jakitera eman behar diete emakumeen eta neskatu-mutikoen aurka nabaritzen duten indarkeria-zantzu oro" (46).

Kirol-esparruari dagokionez, 25. artikuluko 2. atalak -Kultur Jarduerak- dio:

"Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonek tratatu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko".

Indarrean den legediaz gain, berdintasunari buruzko politika publikoen markoaren barruan kontuan eduki behar da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana (47). Hain zuzen ere, Plan hori Euskal Administrazio Publikoentzako lan-erreminta bat da, eta hamahiru neurri finkatzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari begira lan egiteko. Gizarte-aldaketarako hainbat erronka ere biltzen ditu, hiru interbentzio-ardatzetan bilduta: I. ardatza, baloreen aldaketari eta emakumeen ahalduzko pertsonalari, kolektiboari eta sozialari buruzkoa; II. ardatza, gizarte-eraketa erantzunkideari buruzkoa; eta III. ardatza, emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa.

I. ardatzak emakumeen ahalduzkoa bilatzen du, jarduera-fisikoa baliatuta; berriz, III. Ardatzak, batetik sentsibilizazio eta prebentzio programak hartzen ditu (7. programa), eta, bestetik, detekziorako eta arretarako programak (8. programa), emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazte aldera.

(45) 4/2005 Legea, otsailaren. 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. I. Kapituluak-Parte-hartze soziopolitikoa, 25. artikulua- Kultura-jarduerak, 2. paragrafoa.

Eskuragarri: <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

(46) 4/2005 Legea, otsailaren. 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, III. Kapituluak-Hezkuntza, 1. sekzioa, 31. artikulua, 2. paragrafoa. EHAA, 118, 1998ko ekainaren 25ekoa.

(47) Eskuragarri:

http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/u72_iv_plan/eu_emakunde/adjuntos/VIPlan_final_eu.pdf

Bestalde, kirol-jarduna sarritan eskola-sasoian hasten dela aintzat hartuta, aipatzekoa da eskola-esparruko Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana (48), "Hezkidetzari eta genero-indarkeria prebenitzeari buruzko prestakuntza ikastetxeetan bertan indartzea, aldatzeko proiektuak bultzatzeko" bideratutakoa, hain zuzen ere. Planak hezkuntza-esparruan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egiteko eta prebenitzeko helburuak eta ekintzak proposatzen ditu. Zehatzago, Plan horren 3. helburua da "Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea".

Plan horrek onartzen du sarritan bihurtzen dela emakumeen aurkako indarkeria ikusezin edo natural, eta bai publikitatean bai komunikabideetan gizonezkoen emakumeekiko nagusitasuna aldarrikatzeko baloreen eta mezuen etengabeko transmisioak emakumeen aurkako indarkeria erabiltzera edo justifikatzera garamatzala.

KIROLA

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak (49), haren printzipio gidarietan, kirol-jardueren maila guztietan emakumeen integrazioa erraztuko duten neurrien sustapena defendatzen du.

Euskal Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak (50), II. Tituluan -Kirol Federazioen funtzioak-, lurralde-federazioei eta euskal federazioei buruzko 12. eta 13. artikuluetan, beste hainbaten artean honako funtzio hauek zehazten ditu:

"n" eta "o" atalak: "Dagozkien kirol modalitatean eta lurralde eremuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den heinean, bermatzea".

Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko dekretu horren XIV. Tituluak, 169. artikuluan -Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aldeko ekintza positiboaren plana-, zehazten du:

"Kirol federazioek dagozkien babes administrazioek ezartzen dituzten epeetan eta baldintzetan beharko dituzte emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aldeko ekintza positiboaren planak taxutu, onartu eta gauzatu, federa-

(48) Eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetzeta_plana_e.pdf

(49) 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena. EHAA, 118, 1998ko ekainaren 25ekoa.

(50) 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena. EHAA, 31, 2006ko otsailaren 14koa.

zioaren kudeaketan bertan eta kirol modalitate bakoitzean, gutxika, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatze aldera”.

Enpresa munduan garatzen diren ekintza positiboko planen antzera, kirol-erakundeetako -federazioak zein klubak- berdintasun planek sexu-jazarpenaren eta abusuen aurkako protokolo (51) bat eduki beharko lukete, administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen diren langileen, kirolarien, teknikoan, arbitroen eta zuzendarien lan-osasunari buruzko atalean hain zuzen ere.

Azkenik, eskola kiroleko lehiaketen diziplina-araubidea ezartzen duen uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua (52) ere aipatu behar dugu. Dekretu horrek bai kirolarien bai teknikarien arau-hauste larriak tipifikatzen ditu, eta *adierazpen sexistak eta agintekeria* kirol-esparruan sexu-jazarpenarekin, eta abusu sexual eta sexistarekin estuki lotuta daudela zehazten du.

II. Kapituluak, Arau-hauteak eta zehapenak, 8. artikulua - Kirolarien arau-hauste oso larriak:

a. “Epaile, kirolari, teknikari, kirol-agintari, ikusle edo kirol-lehiaketetan esku hartzen duten gainerako pertsonak erasotzea, larderiak edo hertsatzea”.

d. “Kirolean indarkeria, sexismoa, arrazismoa, xenofobia, homofobia eta intolerantzia pizten duten adierazpen publikoak eta gainerako ekintzak”.

Era berean, 9. artikuluan, kirolarien arau-hauste larriei dagokienez:

b. “Epaileak, teknikariak, kirolariak, kirol-agintariak, ikusleak edo kirol-lehiaketan esku hartzen duten gainerako pertsonak laidotzea eta iraintzea”.

11. artikuluan -Teknikarien eta zuzendarien arau-hauste oso larriak-, 8. artikuluan zehaztutako bi arau-hausteez gain honako hau ere aipatzen da:

e. “Agintekeriaz jokatzeko”.

(51) Emakunde (2011). Enpresa eta entitate pribatuetan berdintasunari buruzko planak eta diagnostikoak egiteko metodologia.

Eskuragarri:

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-igualorg/eu/contenidos/informacion/ig_org_enlaces/eu_material/adjuntos/metodologia-definitiva-web-eus.pdf

Eta Kirol-kontseilu Gorena (Ferro, Silvia; Azurmendi, Ainhoa; Leunda, Gorka). (2012). Guía para incorporar la igualdad en la gestión de las federaciones deportivas. <http://publicacionesoficiales.boe.es/detail.php?id=002200812-0001>

(52) 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa. EHAA, 186, 2013ko irailaren 30ekoa.

1.5. EGOERA, JARRERA ETA PORTAERA ONARTEZINAK

Gida honek kirol esparruan emakumeei egindako sexu-jazarpen eta abusuekin erlazionatutako egoera, jarrera eta portaera ohikoenen zerrenda erakusten du. Ondorengo dokumentuak hartu ditu abiapuntutzat:

- Emakumeen kontrako indarkeria erotik kentzeko nazioarteko erakundeek argitaratutako dokumentuak.
- Kirolean emakumeen kontra izaten diren sexu-jazarpen eta abusuari buruzko Nazioarteko Batzorde Olinpiarren dokumentuak.
- Europako beste herrialde batzuetan argitaratutako hainbat gidaren (53) berrikuspenak.
- Zenbait adituk (54) nazioarteko eremu akademikoan eta medikuntza-arloan burututako azterlanak.
- EAEko kirolariek eta profesionalekin egindako kontrastea, -beren bizipenak, pertzepzioak eta iritziak ekarri dituzte-, dauden datuak gure inguru geografikoko kirol arloan daudenean alderatu eta haien egokitasuna egiaztatzeko.

Egoera, jarrera eta portaera onartezinen identifikazioa hiru taldetan antolatu da. Hiru taldeok gizon entrenatzailearen (55) eta emakume kirolariaren arteko harremanaren aspektu desberdinak taldekatzen dituzte: lehenak, izaera orokorrekoak, adin txikiko emakume kirolariaren kasuei garrantzi berezia ematen die; bigarrenak, hizketa bidezko komunikazioari eta hizketaz kanpokoari erreferentzia egiten die; hirugarrenak, kontaktu fisikoari. Azkenik, sexu-jazarpenek eta abusuek emakume kirolariengan dituzten ondorioen zerrenda gehitu da.

(53) Norwegian Olympic and Paralympic Committee and Confederation of Sports (2010). Guidelines to prevent Sexual Harassment and Abuse in Sport. Eskuragarri:

http://www.idrett.no/tema/lover/retningslinjer/Documents/BROSJYRE_seksuell%20trakassering_ENGELSK_WEB.pdf
Eta Consell Català de l'Esport (2005). op. cit.

(54) Fasting, K. (2012). What do we know about sexual harassment and abuse in sport in Europe. Selected risk Factors (de Brackenbridge, 2001 eta Fasting, 2011). Europako Kongresuan aurkeztutako ponentzia "Safer, better, stronger! Prevention of Sexual Harassment and Abuse in Sport. Berlin, 2012ko azaroaren 20-21.

Y Marks, Saul et. al. (2011). Sexual harassment and abuse in sport: the role of the team doctor. British Journal of Sports Medicine, 46, 905-908 or. Eskuragarri: <http://bjsm.bmj.com/content/46/13/905.full.pdf+html>.

(55) NBOren arabera, taldeko gizonezko kide, zuzendaritzakoak, mediku-zientzialariak etab. baztertzin ez badira ere, entrenatzailea da sexu-jazarpenera edo abusua egiteko subjektu nagusia. Jarrera-erlazio honetan entrenatzaileari buruz ari da, nahiz eta identifikatu diren jarrera eta portaera batzuk kirol-eremuari lotutako beste gizon batzuek burutu ditzaketela baztertzin ez duen.

1.5.1. EGOERA OROKORRAK

Gizon entrenatzaileak egin behar ez duena:

- Informazioa ateratzeko helburu hutsarekin, emakume kirolariari bere bizitza pribatuari buruzko galdera ezerosorik, emakume horren kirol jardueraren garapen egokirako garrantzirik gabekoak direnean.
- Emakume kirolariari bere sexu-bizitzari buruzko galderarik.
- Emakume kirolariaren bizitza pribatuan sartu. Informazioa eskuratzeko presionatu -bere bizitza nolabait kontrolatzeko, edo emakume kirolari horren jarduera eta harreman pertsonaletan bere irizpidea inposatzen saiatzeko-.
- Emakume kirolariari etengabe telefonoz deitu.
- Emakume kirolariaren bizitza pribatua kontrolatu, haren “babeslea” delakoan. Ez du/da:
 - Uneoro non dagoen eta zer egiten duen jakiteko informazioa eskatuko.
 - Ikastetxera edo lantokira emakume kirolariaren bila joango.
 - Kirol eremutik kanpo, itxuraz ustekabeko topaketarik probokatuko: emakume kirolaria normalean egoten den tokietan ez da agertuko.
- Dutzak eta aldagelak emakume kirolariekin (56) konpartitu.
- Baimenik eskatu gabe emakume kirolarien aldageletan sartu.
- Aldageletan egon emakume kirolariak dutzatzen dauden bitartean, edo jantzi gabe daudenean. Batzuetan, gizon entrenatzaileak une horiek aprobeztatzen ditu lehiaketari buruzko aspektu batzuk aztertzeko edo jarraibideak emateko.
- Emakume kirolariak behatu toki erreserbatuetan eginkizun intimoak egiten dituzten bitartean (aldagelak, komunak, etab.).

(56) Jarrera honek ez du kontraesanik sortu nahi gorputz biluziaren naturaltasuna defendatzen dutenen, dutzak eta aldagelak bi sexuetako pertsonen erabiltzearen aldekoak direnen edo gune nudistak defendatzen dituztenen teoriekin. Edozein kasutan, aukeratzeko eskubideak lehentasuna izan behar du; gainera, gaur egun ez dago egoera hauek naturaltasunez eta errespetuz bizitzea baliatzen duen koiunturarik. Hori lortzeko, biztanleriak, hezkidetzaren ikuspuntutik prestakuntza afektibo eta sexuala izatea beharrezkoa izango litzateke. Esaterako, gorputz-heziketa saioen edo eskola-kirolaren ostean, txikitatik neska-mutilak elkarrekin dutxatzeko ohitura izatea.

- Sexu-izaera duten gonbidapen, bultzada edo proposamen espliziturik.
- Lehiatzera joateko bidaiak egiten dituztenean, emakume kirolariei alkohola kontsumitzen utzi, ezta kontsumitzera bultzatu ere.
 - Garraibideetan, batez ere lehiatu osteko bueltako bidaietan.
 - Topaketen ostean, batez ere garaipen bat ospatzen ari direnean.
 - Jaietan, zeremonietan, harreretan eta beste ekitaldi ofizial batzuetan.

Goian aipatutako sexu-jazarpen eta abusu egoera orokorrek garrantzi berezia hartzen dute gizon entrenatzailea eta emakume kirolaria elkarrekin bakarrik daudenean; horietan, ondoko arrisku hauek nabarmenduko ditugu:

- Emakume kirolari bakarrarekin aldagelak konpartitzea.
- Emakume kirolari bakarrarekin dutxatzea.
- Bidaietan, emakume kirolari batekin gela konpartitzea.
- Banakako entrenamendu saioak (57) egiteko, emakume kirolari bakarrari deitzea.
- Emakume kirolaria, bera bakarrik, bere etxera gonbidatzea. Edo, ohiko kirol esparrutik kanpo, antzeko intimitate egoera bat probokatzea.
- Emakume kirolariari sexu-zerbitzuak eskatuz, edo hauek lortzeko itxaropenez, emakume kirolariari kirol-sari edo abantailak eskaintzea.

Ez da gomendagarria gizon entrenatzailearen eta emakume kirolariaren artean harreman afektiboak finkatzea. Hala ere, hori gertatzen bada, eta harremana pertsona helduen artekoa eta elkarrenganako bada, egoera era zabal batean planteatu eta argitu behar da, bai taldearekin, bai hurbileko kirol inguruarekin (kluba edo federazioa).

(57) Argibide honek kirol mota guztietarako balio du, goi-mailakorako izan ezik, kirolean edo saio bakoitzean, taldean edo bakarka kirolariek egiten dutenaren independentziaz, gizon entrenatzaile batek zuzendutako kirol entrenamenduak taldean egiten baitira.

1.5.2. HIZKETA BIDEZKO ETA HIZKETAZ KANPOKO KOMUNIKAZIOA

HIZKETA BIDEZKOA

Oldarkortasuna hizketa bidezko komunikazioan: biraoak, hitz itsusiak, adierazpen sexistak, sexu-konnotazioa duten aipamenak, kirolean berezkotzat hartzen dira. Goi-mailako kiroleko jarrera hau gainontzeko kirol-maila guztietara zabaldu da, eskola-kirolera ere bai. Gainera, jarra hori albo batera utziz gero, kirolaren esentziaren funtzio katartikoaren parte galduko den ustea dago. Hala eta guztiz ere, berdintasunaren eta dibertsitatearen aldekoa den eta giza eskubideak errespetatzen dituen ikuspegitik, ez dira nahastu behar norgehiagoka fisikoan egon behar den zilegizko oldarkortasuna eta oldarkortasun adierazpen irrazionalak edo beharrezko ez direnak. Portaera horrek biztanleriaren sektore handi bat kirola gaitzestera bultzatzen du.

Gizon entrenatzaile batzuek hizkera sexista erabiltzen dute emakume kirolariekin komunikatzeko, emakumeekiko hitz itsusi edo mespretxuzko esaldi eta esaldi umiliagarriak, edota sexu-konnotazio argia dutenak erabiliz. Gainera, adierazpenei estilo erasokor eta peioratiboa gehitzen bazaie (esaterako, oihu, birao eta larderiak), botere eta mendetasunezko harremana adierazten dute:

Gehien erabiltzen diren eta ekin beharreko ahozko adierazpenak, ondokoak dira:

- Emakumeak oro har barregarri uzten dituzten komentario sexistak.
- Emakume kirolarien jarduera zalantzan jartzen duten edo barregarri uzten duten komentario sexistak; hain zuzen, emakume izateari buruzkoak direnak.
- Emakume kirolariaren gorputzeko ezaugarri edo itxurari buruzko mespretxuzko komentarioak edo komentario ezegokiak (pisua, forma, gorputzeko atalen baten neurria, etab.).
- Emakume kirolariaren janzkerari eta apaintzeko erari buruzko mespretxuzko komentarioak eta komentario ezegokiak.
- Sexu-izaeradun eta sexistak diren hitz itsusiak, biraoak eta adierazpenak.
- Emakume kirolariaren gorputz-ezaugarriei buruzko sexu-izaerako adierazpenak edo komentarioak.
- Emakume kirolariaren janzkerari edo apaintzeko erari buruzko sexu-izaerako adierazpen edo komentarioak.

- Emakumeak barregarri uzten dituzten txantxak, isekak edo txistek; umore-sen baldarra edo sexu-edukiz betea erakustea.
- Adierazpen, txantxa eta iritzi homofoboak edo lesbofoboak, bai izaera orokorrekoak, bai emakume kirolari baten sexu-orientazioari buruzkoak.
- Ezinegona eragiten duten eta etsai-giroa sortzen duten oldarkortasunez betetako adierazpenak.
- Beldurra eragiten duten eta botere abusua adierazten duten oldarkortasunez betetako adierazpenak.
- Sexu-konnotazioa duten ziriak edo biraoak.
- Zuzenketa taktiko-tekniko baldarrak, hitz itsusiak eta biraoak, bai lehiaketan bai entrenamendu saioetan.
- Hitzeko komunikazioan sexu-izaera duten proposamenak.

HIZKETAZ KANPOKOA

- Sexu-konnotazioa duten begirada lizunak, edo emakume kirolari bati adi-adi begira gelditzea.
- Sexu-konnotazioa duten txistuak.
- Keinuak, intsinuazioak eta mugimenduak: sexu-izaera duten aurpegi edo gorputz-adierazpenak.
- Pornografia-irudiak edo sexu-edukia duten gauzak erakustea.
- Bideo edo film erotikoak edo pornografikoak emakume kirolariarekin ikustea, edo haiei uztea.
- Teknologia berriak era ezegokian erabiltzea:
 - Berehalako mezularitza baliatuz beharrezkoak ez diren mezuak edota mezu ezerosoak bidaltzea.
 - Sare-sozialak baliatuta, emakume kirolariak nahi ez duen komunikazioa edo jarraipena.
 - Dei galduak etengabe egitea.
 - Sexu-edukia duten mezu elektronikoak bidaltzea.

1.5.3. KONTAKTU FISIKOA

Gorputz kontaktuari buruz hitz egitean, esan behar da kirol eremuan dagoen giro desinhibitua ona eta desiragarria dela, bai kirola praktikatzerakoan, bai gogo-aldarteak adierazterakoan. Gainera, egia da emakume kirolariek beren gorputz biluzia naturaltasunez erakusten dutela dutxa edo aldagelak konpartitzen dituztenean, baina ez da inoiz era okerrean interpretatu behar, emakume kirolariek askatasun osoz erabaki baitezakete nork eta noiz ukitu dezakeen beren gorputza. Horrenbestez, inork ezin du askatasun handiko giro hori bere gabezi edo behar afektiboak, edo sexu beharrak, asetzeko erabili. Hori dela eta, mugak ezartzea nahitaezkoa da: batetik, estortsio-kasurik arinenetan egokia eta ezegokia zer den bereizteko, eta bestetik, sexu-jazarpenarekin eta abusuarekin erlazionatutako larritasun-maila desberdinak zehazteko.

Onartezinak diren ekintzak:

- Hurbiltasun handiegia eta ezegokia: emakume kirolariak nahi ez dituen gorputz-kontaktua, besarkadak, estutzeak eta gorputz-hurbilketak.
- Gorputzeko hainbat atal ukitzea: ipurdia, bularrak, genitalak, etab.
- Atximurkadak eta txalotxoak.
- Emakume kirolaria besarkada batekin hurbilaraztea, eta ondoren musu ematen saiatzea.
- Derrigorrean musu ematea.
- Baimendu gabeko sexu-harremanak.
- Bortxaketa saiakerak.
- Bortxaketak.

Egoera, jarrera eta portaera onartezinak

<p style="text-align: center;">EGOERA OROKORRAK</p> <p>Gizon entrenatzaileak emakume kirolariek duen harremana</p>	<p style="text-align: center;">HIZKETA BIDEZKO KOMUNIKAZIOA</p> <p style="text-align: center;">Adierazpenak, komentarioak</p>	<p style="text-align: center;">HIZKETAZ KANPOKO KOMUNIKAZIOA</p> <p style="text-align: center;">Sexu-izaera duten keinuak eta ekintzak</p>	<p style="text-align: center;">KONTAKTU FISIKOA</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Bere bizitza pribatuari buruzko galderak egitea - Bere bizitza sexualari buruzko galderak egitea - Bere bizitza pribatuan sartzea - Telefono deiak etengabe egitea - Bizitza pribatua kontrolatzea - Ikastetxera edo lantokira bere bila joatea - Itxuraz ustekabeak diren topaketak probokoztea, behin eta berriz - Aldagelan baimenik eskatu gabe sartzea - Dutzatzen edo janzen ari diren bitartean aldagelan jarraitzea - Aldageletan, komunetan... modu klandestinoan behatzen aritzea - Bidaietan alkoholaren kontsumoa onartzea edo bultzatzea: garraiobideetan; lehiaketaren ostean; jaietan edo ospakizunetan - Emakume kirolari bakarraren eta gizonezko entrenatzailearen arteko harreman duala: aldagela konpartitzea, berarekin dutzatzea - Bidaietan logela konpartitzea - Entrenamendu indibidualak jartzea - Bere etxera gonbidatzea - Esplizituki sexu-itxurako proposamenak, gonbidapenak eta bultzadak egitea - Sexu-zerbitzuen trukean kirol-onurak eskaintzea 	<p>Komentario sexistak, mespretxuzkoak edo ezegokiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputzeko ezaugarriren bat edo itxura dela-eta emakumeak, bai orokorrean bai emakume izateagatik, zalantzan jartzen edo barregarri uzten dituztenak. - Janzkerak edo apaintzeko moduari buruzkoak - Sexu-izaera duten hitz itsusiak, biraoak eta espresioak - Emakumeak barregarri uzteko txantxak, burlak edo txistek - Emakume kirolari baten sexu-orientazioari buruzkoak, edo orokorrean egiten diren adierazpen, txantxa edo iritzi homofoboak - Aurkako giroa eta ezinegona eragiten duten agresibitatez betetako adierazpenak - Beldurra eragiten duten agresibitatez betetako adierazpenak - Sexu-konnotazioa duten ziriak edo biraoak - Hitz itsusiak eta biraoak baliatuta emandako instrukzio eta zuzenketa taktikoak zein teknikoak - Hitzek sexu-izaera duten proposamenekin beldurraraztea 	<ul style="list-style-type: none"> - Begirada lizunak edo etengabeak - Txistuak - Aurpegi edo gorputz-adierazpenak - Pornografia-irudiak edo sexu-edukia duten irudiak erakustea - Bideo edo film erotikoak edo pornografikoak ikustea - Teknologia berrien erabilera ezegokia: <ul style="list-style-type: none"> - Mezu ezerosoak bat-bateko komunikazioa erabiltzea - Sare sozialak baliatuta, nahi ez den jarraipena edo komunikazioa - Sexu-edukia duten posta elektronikoa - Behin eta berriz egindako dei galduak 	<ul style="list-style-type: none"> - Gorputz-kontaktu handia edo ezegokia, besarkadak, estutzeak... - Gorputzeko hainbat atal ukitzea: ipurdia, bularrak, genitalak... - Atximurkadak eta txaloak - Emakume kirolaria besarkada batekin hurbilaztea, eta ondoren musu ematen saiatzea - Derrigorrean musu ematea - Baimenik gabeko sexu-harremanak - Bortxaketa saiakerak - Bortxaketak

1.5.4. KIROLARIEN GAINEN ONDORIOAK

Ondoren, sexu-jazarpenak eta abusuak pairatzen dituzten emakume kirolariei jazarpen eta abusu horiek osasunean eta bizitzan eragindako ondorio larriak zerrendatzen dira. Kirol-medi-kuntzaren (58) eta kirol-soziologiaren (59) eremuan aztertutako hainbat ikerketatan identifikatu diren datuak eta Nazioarteko Batzorde Olinpiarrek (60) eta Norvegiako Batzorde Olinpiarrek (61) eman dituztenak batu dira.

- Estresarekin lotutako estutasuna eta ondorio fisikoak:
 - Estres fisikoa.
 - Amesgaiztoak.
 - Ohea bustitzea.
 - Sexu-transmisiozko infekzioak.
 - Botika eta substantzia dopatzaileak neurririk gabe hartzea.
 - Elikadura desordenak, pisua nabarmen irabazi edo galtzen denean
 - Portaera obsesibo-kompulsiboak, edo desordenak.
 - Ideia paranoideak, zaintza handiegipean dauden usteen.
 - Trauma osteko desordena akusatua eta kronikoa.
 - Hira, sumingarritasun eta nahasketa sentimenduak.
 - Lotsa sentimendua.
 - Gorputz-irudiari buruzko efektu negatiboak.
 - Autoestimuari eta autokonfiantzari buruzko efektu negatiboak.
 - Kirol-errendimenduaren gaineko satisfazioa gutxitzea.
 - Kirol-errendimendu baxua.
 - Kirol-jarduera burutzeko edo bertan parte-hartzeko motibazioa gutxitzea.
 - Kirol-jarduera bertan behera uztea.

- Depresio klinikoa:
 - Umorea (triste, haserrekor egotea).
 - Interesa galtzea (anhedonia).
 - Jateko gogoan aldaketak.
 - Insomnioa eta aldaketak lo egiteko orduan.
 - Kontzentrazioa gutxitzea.
 - Erru-sentimendua.
 - Itxaropen-ezaren sentimendua.
 - Laguntza-ezaren sentimendua.
 - Libidoa galtzea.

(58) Marks, Saul et. al. (2011). op. cit.

(59) Fasting, Kari (2012). op. cit.

(60) IOC (2007). op. cit.

(61) Norwegian Olympic and Paralympic Committee and Confederation of Sports (2010). op. cit.

- Energia galtzea.
 - Nekea.
- Portaera auto-kaltegarriak:
 - Janari-betekadak.
 - Azalean ebakiak.
 - Ilea tiraka ateratzea.
- Suizidioa eta hilketa:
 - Pentsamendu suizidak.
 - Buruaz beste egiten saiatzea.
 - Buruaz beste egitea.
 - Pentsamendu gizeraileak.
 - Hilketa saiakera.
 - Hilketa.
- Harremanetan dituen ondorioak:
 - Familia bizitzan eragin negatiboa.
 - Lagun arteko harremanak hondatzea.
 - Taldeko kideen arteko harremanetan eragin negatiboa.
 - Gizon entrenatzaile eta emakume kirolariaren arteko harremana hondatzea.
 - Ikaskideen arteko harremana hondatzea.
 - Lankideen arteko harremana hondatzea.
 - Beste pertsona batzuegan konfiantza izateko arazoak.
 - Harreman intimoetan arazoak.
 - Jarduera sozialetan efektu negatiboa.
- Beste pertsona batzuei edo animaliei kalte egitea:
 - Taldeko kideei.
 - Ikaskideei.
 - Auzokideei.
 - Senideei.
 - Maskotei.

Oso garrantzitsua da mediku taldeko, zuzendaritzako eta talde teknikoko langileek edota gurasoek jazarpenek eta abusuek emakume kirolariengan eragin ditzaketen sintomak eta ondorioak behar bezala ezagutzea, gertatuz gero, arazoa identifikatu eta errotik kentzen lagundu ahal izateko. Emakume kirolarien osasun fisiko eta psikologikoan jazarpenek eta abusuek eragin ditzaketen efektuak ez ezagutzea kirol arloko sexu-jazarpenak eta abusuak detektatzeko eta prebenitzeko arrisku faktore bat izan daiteke, berez.

1.6. ARRISKU-FAKTOREAK

Egindako ikerketen arabera (62), jarraian aipatzen diren arrisku-faktoreek emakume kirolariak jasandako sexu-jazarpena eta abusua erraztu dezakete.

Kasu batzuetan, adierazitako egoerek erlazioa dute gogobetekoak ez diren harreman afektiboak edo beste arazo pertsonal batzuk jasaten egon litezkeen emakume kirolarien zaurgarritasun uneak aprobetxatzen dituzten gizon entrenatzaile batzuen jarrera oportunistekin. Zehatzago esanda, adingabeen edo gazteenen kasuan, gurasoekin dituzten gabezi afektiboak izan daitezke. Horrela, entrenatzaileak emakume edo neska kirolariarekiko lotura afektibo handiagoa gara dezake. Hori dela eta, arrisku faktore horiek adin tarte guztietan identifikatzea garrantzitsua bada ere, emakume kirolariak adingabeak direnean beharrezkoa da arreta berezia jartzea.

KIROL JARDUERAREKIN LOTURIKOAK

- Bidaiak, eta gehien bat kontzentrazio luzeak, arrisku faktore garrantzitsuenetako bat izan daitezke, hainbat arrazoiengatik:
 - Emakume kirolariak, gizon entrenatzaileak, teknikariak, zuzendaritza taldekoek etab. hotel berean igarotzen dute gaua.
 - Kontzentrazioak edo txapelketak direla-eta emakume kirolariak etxetik kanpo denboraldi luzeak pasatzen dituztenean, egoera bereziak bizi dituzte: denbora-antolaketa desberdinak, ohiko ordutegi eta eginkizunak bete beharrik gabe.
 - Etxetik kanpo egiten diren egonaldiek gabezi afektibo eta bakardade sentimenduak eragin ditzakete. Sentimendu horiek sexu-jazarpen eta abusuen aurrean egoera ahulago batean uzten dute emakume kirolaria.
 - Alkohola edo beste droga batzuen kontsumoak desinhibitze efektua edo kontzientzia galtzea eragiten dute.
- Masaje saioa era profesionalean egin ordez espazio isolatuetan egiten denean, emakume kirolariaren erlaxazio egoera eta gorputz biluziarekin dagoen kontaktua aprobetxatuz muga etikoak urratu nahi izatea.
- Gizon entrenatzaileak sexu-harremanak eduki nahian emakume kirolariarekin egoteko aprobetxatzen duen denbora. Toki ohikoenak ondokoak dira: autoa, entrenamendu edo

(62) Chroni, Stilianii et al. (2012). op. cit. eta Fasting, Kari (2012). op. cit.

partidatik bueltan egiten den ibilbidean; etxea, aitzakiaren batekin emakume kirolaria leku batera gonbidatzen denean; edo, hotel bateko gela.

- Gizon entrenatzaileak autoritatearen ordezkari papera hartzen duenean, edo aitaren pape-
ra hartzen duenean, normala da emakume kirolariak honekiko erabateko dependentzia
psikologikoa izatea. Gizon entrenatzailea babesle eta gidari bihurtzen da, kirolariari eten-
gabe aholkuak ematen dizkio, eta kirolariak edozein erabaki hartu aurretik entrenatzaileari
galdetzen dio, gaiak kirolarekin lotura eduki zein eduki ez.
- Emakume kirolariek sexu-jazarpen eta abusu adierazleak identifikatzeko duten ezintasuna.
- Emakume kirolariak ez dauka hasiera-hasieratik gizon entrenatzailearen adierazpen afektibo-
sexualak edo sedukzio saiakerak eragozteko baliabide psikologikorik, ezta emozionalik
ere. Beharrezkoa da pertsonalitate handia eta norberarengan segurtasuna edukitzea, ja-
kinduria eta boterea dituen gizon entrenatzaileari aurre egiteko. Autonomiaz jokatzeko be-
harrezkoak diren ezaugarriak edukitzea ohikoa ez denez -are gutxiago ezaugarri horiek ki-
rol arlokoak badira-, kirol arloan hezkidetzan ondo trebatzea izango da emakume kirolarien
baliabiderik garrantzitsuenak. Trebakuntza horrek, genero eta emakumeen ahalduak ikus-
puntutik, heziketa afektibo-sexualari buruzko edukia ere eduki beharko ditu.
- Emakume kirolariek beren eskubideak ez ezagutzea, eta sexu-jazarpena eta abusia pairat-
zen dutenean nola jokatu behar duten ez jakitea.
- Goi mailako emakume kirolarietarako dagokienez, aurretik aipatutako faktoreak are garrantzi-
tsuagoak dira gizon entrenatzailearekiko duten mendekotasunagatik, azken horrek kirola-
rien kirol-karrerako aspektu erabakigarrietan esku hartzeko gaitasuna baitu. Izan ere,
emakume kirolariak arrazoi hauengatik baldintzatuta daude:
 - Hautatuak izateko nahiagatik.
 - Arrakasta lortzeko nahiagatik.
 - Beka lortzeko edo berritzeko nahiagatik.
 - Kontzentrazio eta lehiaketetako egonaldi luzeengatik.

ANTOLAKUNTZAREN EGITURA ETA KULTURAREKIN LOTURIKOAK

- Neska eta emakumeek kirol-jarduera burutzean egoera diskriminatzaileari buruzko senti-
bilizazio falta.
- Emakume kirolariek jasaten duten sexu-jazarpenari eta abusuari buruz dagoen senti-
bilizazio falta.

- Kirol arloko jendearen trebakuntza falta: zuzendaritzakoak, entrenatzaileak, arbitroak, mediku-taldekoak, etab. Genero gaietan dagoen trebakuntza falta horrek kirol arloa gizarte-sektore andozentrikoenen artean jartzen du.
- Kirol eremuan emakumeek jasaten duten diskriminazioa eta indarkeria errotik kentze aldera, kirol arloko pertsona guztiak genero-berdintasunari buruzko gaietan trebatzeak duen garrantzia ez onartzea.
- Emakume kirolariak jasaten ari diren sexu-jazarpen eta abusu egoerak ukatzea.
- Jokabide-patroiei buruzko kode etikorik ez garatzea.
- Emakume kirolariak edota bestelako emakumeek kirolean jasaten dituzten bidegabeko edo delituzko egoerak errotik kentzeko neurri eraginkorrik ez hartzea.
- Pertsona eta emakumeen kirol-lana iraintzen duten ekitaldi publikoak neurritz ez zigortzea, esaterako, errespetu falta erakustean, komentario matxistak egitean, edo, emakume arbitroei, epaileei eta zuzendariari biraoak zuzentzen zaizkienean, etab.
- Isun penalekin zigortuak izan daitezkeen sexu-jazarpenarekin eta abusuarekin erlazionatutako ekintzak isiltzea, eragozte edo ekiditea.
- Sexu-orientazio desberdinak onartzeko tolerantzia-kulturarik eza.
- Emakume kirolarien irudia sexu-erreklatotzat erabiltzea. Azken urteotan, gorputz erakar-garriena duten emakume kirolariak komunikabideetan gehien agertzen direnak diren ideia orokortu egin da, horien kirol-garaipenak zeintzuk diren kontuan hartu gabe. Gizartearen iritziak, kirolean emakumeak duen garrantziak zerikusi gehiago du haien esker-ono fisiko-arekin kirol-trebetasunekin baino.
- Emakume kirolariei janzkera zehatz bat inposatzea; kirol-irizpideak oinarritzat hartu beharrean telebistako audientziarekin erlazionatutako interesak oinarritzat hartzea, hain zuzen ere (63).
- Kirol ikuspuntutik emakume kirolarientzat kaltegarriak diren arau arbitrarioak eta ezin justifikatuzkoak ontzat hartzen ez dituzten emakume jokalaria zigortzea (64).

(63) Hau nazioarteko federazioetan gertatu da: saskibaloian, badmintonen, hondartza boleian eta boxeoa.

(64) Duela gutxiko adibidea da Diana Taurasi saskibaloiko jokalariaren kasua. Horrek Nazioarteko Saskibaloiko Federazioak emakume kirolarien janzkerari buruz ezarritako arauak ez betetzea erabaki zuen, eta, ondorioz, zigor ekonomiko handiei aurre egin behar izan ziren aurreko janzkera erabilita jokatu zuen partida bakoitzagatik.

- Emakumezkoentzako liga profesionalen sorrera eragozte, edo ez bultzatzea. Horren ondorioz, kontratu profesionalen formalizazioak bitarteko, emakumeen estatusaren duintasuna lehiatzen diren kirol-taldeen borondatearen menpe gelditzen da.
- Kudeaketa ekonomikorako eta antolakuntzarako definitutako prozesurik eta irizpide objektiborik ez izatea: baliabide banaketa, langileak hautatzea, kontratazioa eta langile teknikoak, etab.
- Emakume kirolariekin aurrez aipatu ditugun arrisku-egoerak eragin ditzakeen jarrera paternalista hartzea.
- Emakume kirolariekin dagoen kontaktu hurbilak, emakumeok nahi eta onartu ez duten gorputz-kontaktua izateko arriskua ugaritzen duela ulertzea, bai kirol-jarduerak irauten duen bitartean, bai jardueratik kanpo.
- Kirol-guneetatik kanpo kirolarekin erlazionatutako gaietara buruz hitz egiteko aitzakiarekin gizon entrenatzaileak emakume kirolari bakarrari deitzea normalizatzea.
- Ospatzen diren harreretan eta afarrietan alkohola kontsumitzea. Batzuetan, alkoholaren kontsumoak emakume kirolariak kirol-inguruneko beste kide batzuekin harreman ezegokiak izatera bultzatzen ditu. Gizon horiek botere-egoeran daude, eta emakume kirolarien ahultasuna erabiltzen dute: kirol-egoerak hobera egiteko eskaintzak, promesak (bekak lortzea, laguntzak, jarduera baterako hautatua izatea, etab.).
- Edozein lehiaketa mailatan, bidaiek arrisku-egoerak ugaritzen dituzte. Etxetik kilometro askotara egon eta egonaldi luzeak egin behar direnean, beharrezkoa da ondokoak kontuan hartzea:
 - Kirol-topaketa horietan emakume-kirolariak sexu-harremanak izatera behartzeko edo seduzitzeko baldintza errazak ikusten dituzten zuzendariei arreta jarri behar zaie.
 - Emakume kirolari gazteenak eta adingabeak egoera ahulago batean daude.
- Emakume kirolariek zigorrik jasan gabe ezadostasuna adierazteko sistemarik ez izatea.
- Kexak edo salaketak jartzeko politikarik, informazio-prozedurarik, parte-hartzeko biderik eta mekanismorik ez egotea.
- Beren eskubideak defendatzeko emakume kirolarien arteko kidetasunik eza.

1.7. PREBENTZIOA

Kirol esparruan emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko biderik zuzenena kirol-ingurune osasungarri bat bermatzea da, pertsona guztiekiko errespetuzkoa, eta maila guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatuko duena.

Ezinbestekoa da kirol esparruko pertsonak hezkidetzan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gaietan trebatuta egotea, eta berebiziko garrantzia dauka kirol-estamentu guztietan emakumeak egotea indartzea.

Onartu ezin diren egoerak eta jarrerak identifikatu ondoren, kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpenari eta abusuei mesede egiten dieten arrisku-faktoreak ezagututa, eta NBEko Emakumeak (65) erakundeak eta Norvegiako Batzorde Olinpiarrek (66) zehaztutako jarraibideak oinarri hartuta, jarraian kirol erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko hartu beharreko zenbait neurri proposatzen dira, besteak beste entrenaitzaleak tarteko diren sexu-jazarpen eta abusu kasuen aurkako neurriak.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRI OROKORRAK

- Kirol erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duten planak ezartzea
- Kirolarekin lotura duten pertsona guztientzat berdintasun eta baterako hezkuntza gaietan trebakuntza sustatzea eta bermatzea. Premiazkoa da kirolarekin lotutako gaietan genero-formaziorako baliabideak jartzea, kolektibo hauei zuzenduta:
 - Emakume kirolariei, dauden egoeraz eta duten eskubideez jabe daitezen.
 - Kirol maila guztietako entrenatzaileei.
 - Teknikari eta zuzendariei.
 - Kazetariei, kirolari buruzko berriak ematerakoan sexu-estereotipoak bazter ditzaten.

(65) NBE Emakumeak (2012). Sexu-jazarpena kirolean. Emakumen eta neskatoen aurkako indarkeriari amaiera emateko Ezagutza Zentro Birtuala. Eskuragarri: <http://www.endvawnow.org/es/articles/30-sexual-harassment-in-sport.html>

(66) Norwegian Olympic and Paralympic Committee and Confederation of Sports (2010).op. cit.

SEXU-JAZARPENAREN ETA ABUSUEN AURKAKO NEURRIAK

- Etika-kode bat ezartzea, federazioetan eta taldeetan benetako berdintasuna bermatzeko. Onargarriak diren eta ez diren jokabideen arteko mugak zehaztea, ohiturek duten indarrari aurre eginez.
- Sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko politikak eta prozedurak garatzea.
- Emakumezko kirolariak sexualitate gaietan trebatzea: haien gorputza kontrolatzeko eskubidea; sexu-harremanen onarpenari eta sexu-praktikei mugak jartzen ikastea; sexu-jazarpena eta abusuak identifikatzea; entrenatzaile eta kirolariaren arteko sexu-harremanetan eragina duten hainbat alderdi, eta haien kirol-bizitzari zelan eragingo dioten.
- Adingabeok sexu-jazarpenetik eta abusetatik zaintze aldera, gurasoen eta beste pertsona batzuen arteko lankidetzat sustatzea.
- Kexak edo salaketak jartzeko prozedurak garatzea, eta ustezko sexu-jazarpen kasuetan pribatutasuna bermatuz esku hartzea.
- Emakume kirolarien eta entrenatzaileen legezko eskubideak babestea; gerta litezkeen errepresalietatik babestea.
- Berdintasuna bermatze aldera ezarri diren politikei eta prozedurei jarraipena egitea.
- Sexu-jazarpena eta abusuak identifikatzeko eta murrizteko aplikatutako politika horien eragina ebaluatzea.
- Kirolean sexu-jazarpenari eta abusuei buruzko ikerketak sustatzea eta laguntzea.

ENTRENATZAILEAREN PORTAERAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK

- Entrenatzaileei zuzendutako kode etikoak eta portaerazkoak diseinatu eta ezarri. Horiek, neskatoekin zein emakume helduekin lan egin, lanpostua eskuratzen dutenean bertan izenpetu eta onartu beharko dituzte aipatu kodeak.
- Kirolarien eta entrenatzaileen artean errespetuzko harremanak sustatu, botere-abusuak baztertuta.

- Lantalde-teknikoak mistoak izango direla bermatu; gizon eta emakumeek osatuta egongo dira: “Kirol esparruetan emakume eta gizon kopurua berdina denean sexu-jazarpena txikiagoa izaten da” (67).
- Alkohola baztertu.
- Hizkera egokia eta errespetuzkoa erabili.
- Egokiak ez diren keinuak, errespetuzkoak ez direnak eta estereotipo sexistetan oinarrituta daudenak baztertu.
- Emakumezko kirolariekin harremanetan jartzekoan teknologia berriak zuzentasunez erabili.
- Emakumezko kirolarien bizitza sexuala eta pribatua errespetatu, ez muturrik sartu.
- Emakumezko kirolarien sexu-joera errespetatu.
- Emakumezko kirolarien garapen integralari lagundu: entrenatzerakoan, autonomia eta erantzukizuna hobetzen lagunduko duten trebakuntza-estiloak hartu.
- Sexu-jazarpenaren eta abusuaren inguruan eztabaida irekirako gune bat sustatu, emakumezko kirolariek gai horietaz konfiantzaz hitz egiteko eta haien zalantzak plazaratzeko.
- Hobekuntza teknikoa lantzeko saioak emakumezko kirolari bakar bati eman behar zaizkionean, entrenatzaileak gutxienez talde bereko beste kide bati ere dei egin, saio berean parte har dezan.
- Entrenatzaileak emakume kirolariarekin bakarka hitz egin beharko balu, kirolariarentzat segurua den inguru batean egin; beraz, kiroldegian, klubean edo federazioaren egoitzan elkartuko dira.
- Adingabeak diren emakume kirolariek kontzentrazioetara edo lehiaketetara joateko bidaiatu behar dutenean, bidaiari buruzko argibideak (bidaia-plana, egonaldia, entrenamenduak eta lehiaketa non izango diren) eman gurasoei edo tutoreei. Halaber, kirolariarekin kontaktuan jartzeko ordutegia ere zehaztu.
- Adingabekoren bat entrenatzailea limurtu nahian badabil, entrenatzailearen erantzukizuna izango da adingabekoarekin sexu-harremanak edukitzeari uko egitea.

(67) Norwegian Olympic and Paralympic Committee and Confederation of Sports (2010). op. cit.


Entrenatzaileak ezinbestean bete beharreko neurri horiek Federazio edo Klubeko Zuzendaritza Batzordeak, Eskolako Zuzendaritzak edo eskumena duen kirol-antolakuntzako Zuzendaritza Organoak ikuskatu beharko ditu.

Ondorengo taulan zehaztuta daude zeintzuk diren arrisku-faktoreak, baita egoera bakoitze-rako prebentzio-neurriak ere:

ARRISKU-FAKTOREAK	PREBENTZIOA
<p>Bidaiak eta kontzentrazioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entrenatzailearekin, teknikariek, zuzendariek... hotel berean lo egitea. - Etxetik kanpora egonaldi luzeak egitea. - Alkohola edo beste droga batzuk hartzea. - Masaje saioak. <p>Arrisku-faktore hauek nabarmenagoak dira kirolaria adingabea denean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Alkohola eta beste droga batzuk baztertzea. - Adingabeko emakumezko kirolariak kontzentrazioetara edo lehiaketetara doazenean, gurasoei edo tutoreei bidaia-plana jakinaraztea.
<p>Entrenatzailearen eta emakume kirolariaren arteko erlazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entrenatzaileak, sexu-harremanak edukitzeko asmoarekin, kirolariarekin bakarka egon nahi duenean. Ohiko lekua izaten dira: autoa, etxea eta hoteleko logela. - Entrenatzaileak aitaren lekua hartzen duenean; kirolariaren eta entrenatzailearen artean mendekotasun psikologikoan erabat oinarritutako harremana gauzatzen delako. - Goi-mailako kirolariei dagokienez: <ul style="list-style-type: none"> - Hautatuak izateko desioa. - Arrakasta gogoak. - Bekak eskuratzea, edo berritzea. - Egonaldi luzeak kontzentrazioetan eta lehiaketetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Entrenatzaileei zuzendutako jokabidezko kode etikoak diseinatzea eta ezartzea. - Lantalde tekniko mistoak bermatzea. - Entrenatzaileak jokabide hauek baztertu beharko ditu: - Entrenamenduak kirolari bakarrarekin burutzea. - Kirolari batekin kirol-eremutik kanpo geratzea. - Emakume kirolari batekin dutxa hartzea. - Emakume kirolariarekin gela berean egotea. - Entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanak errespetuzkoak eta botere-abusurik gabeak izatea. - Emakume kirolariei autonomia garatzen laguntzea. - Kirolarien bizitza sexuala eta pribatua errespetatzea, eta muturrik ez sartzea. - Kirolarien orientazio sexuala errespetatzea. - Jokabide errespetugabeak eta sexistak baztertzea. - Estereotipo sexistarik ez duen hizkera erabiltzea. - Kirolariarekin komunikatzerakoan, teknologia berriak egoki erabiltzea. - Kirolariarekin sexu-harremanak edukitzeari uko egitea, bereziki adingabea bada. Adingabe bat entrenatzailea limurtu nahian badabil, entrenatzailearen erantzukizuna da horri uko egitea.

ARRISKU-FAKTOREAK	PREBENTZIOA <i>(jarraipena)</i>
<p>Emakume kirolariak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun gaietan heziketarik ez edukitzea. - Sexu-jazarpenaren eta abusuen adierazleak identifikatzeko gai ez izatea. - Norbere eskubideak ez ezagutzea, eta sexu-jazarpena edo abusuak jasaten direnean zelan jokatu behar den ez jakitea. - Adierazpen afektibo-sexualak edo sedukzio saiakerak ekiditeko baliabiderik ez edukitzea. - Klubaren edo federazioen erabaki arbitrarioen aurrean desadostasuna adierazi eta kontra egiteko beldur izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume kirolariak sexualitate gaietan trebatzea, hala nola: norbere gorputza kontrolatzeko eskubidea; sexu-harremanei mugak jartzen ikastea; sexu-jazarpena eta abusuak identifikatzea; entrenatzaile eta kirolariaren arteko sexu-harremanetan eragina duten alderdiak ezagutzea, eta haien kirol-bizitzari zelan eragingo dioten jakitea. - Sexu-jazarpenaren eta abusuen gaiari dagokionez, eztabaida irekirako giroa sustatzea.
<p>Kirol entitateak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakume kirolariak jasaten dituzten sexu-jazarpen eta abusu egoerak ukatzea. - Sexu-jazarpenari dagokionez, jokabidezko kode etikorik ez edukitzea. - Kirolean emakumeek jasaten dituzten sexu-jazarpen eta abusu egoerak errotik baztertzeko neurri eraginkorrik ez edukitzea. - Emakumeek kirolean egiten duten lana iraintzen duten ekitaldi publikoak ez zigortzea. - Antolakuntza eta ekonomia kudeatzeko irizpide objektiborik eta prozesu zehatzik ez edukitzea. - Emakumezkoentzako liga profesionalak sortzeko zailtasunak jartzea, emakumezko kirolarien estatusa duin bihurtzeko honek dakartzan eragozpenekin. - Bekak eskuratzeko edo baztertzeko sistemetan irizpide argi eta objektiborik ez edukitzea. - Sexu-jazarpenari eta abusuei dagokienez, zigor penalak eduki ditzaketen jokabideak isiltzea edo hauen kontra ezer ez egitea. - Berdintasun eta baterako hezkuntza gaietan kirol esparruko pertsona guztiek trebakuntzarik ez edukitzea. - Neskatoek eta emakumeek kirola diskriminazio egoera batean burutzen dute, eta horretaz ez jabetzea, sentsibilizatorik ez edukitzea. - Emakumezko kirolariak jasaten ari diren sexu-jazarpenez eta abusuez ez jabetzea, sentsibilizatorik ez edukitzea. - Emakumezko kirolarien eskubideak babeste aldera informazio, parte hartze eta asoziazionismo prozedurarik ez edukitzea. - Emakumezko kirolarien irudia erakargarri sexualtzat erabiltzea; estereotipo femeninoak oinarri hartuta diseinatutako kirol-jantziak inposatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Federazioetan eta klubetan benetako berdintasuna bermatuko duen kode etikoa ezartzea. Onargarriak diren eta ez diren jokabideen arteko mugak zehaztea, ohitura kontuak baztertuta. - Sexu-jazarpenei eta abusuei aurre hartzeko politikak eta prozedurak garatzea. - Kexak jartzeko prozedurak garatzea, betiere pribatutasuna bermatuta. - Emakume kirolarien eta entrenatzaileen legezko eskubideak zaintzea, balizko errepresalietatik babestuz. - Kirolean berdintasun eta baterako heziketa gaietan kirol-esparruko pertsona guztien trebakuntza sustatzea eta bermatzea. - Kirol-erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duten neurriak ezartzea: <ul style="list-style-type: none"> - Organo erabakitzaileetan. - Berdintasun batzordeetan. - Langileak aukeratzekoan. - Baliabide ekonomikoak, materialak eta giza baliabideak banatzerakoan. - Komunikazioan eta publizitatean. - Etab. - Sexu-jazarpenari eta abusuei aurre hartzeko, adingabeen gurasoen eta haien zaintzaren ardura duten beste pertsona batzuen arteko elkarlana sustatzea. - Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatze aldera ezartzen ari diren politiken eta prozeduren jarraipena egitea. - Sexu-jazarpena eta abusuak identifikatzeko eta murrizteko politika hauek duten gaitasuna ebaluatzea. - Kirolean sexu-jazarpenei eta abusuen ikerketak sustatzea eta babestea.

ARRISKU-FAKTOREAK	PREBENTZIOA <i>(jarraipena)</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Bestelako sexu-joerekiko tolerantziarik eza. - Emakumezko kirolariek in jokabide paternalista izatea. - Emakumezko kirolariekiko harremanetan, hurbiltasuna gaizki ulertzea. - Entrenatzaileak, entrenamenduetan zein kirol-eremuetatik kanpo kirolari bakar bati deitzea normalizat hartzea. - Harrera-ekitaldietan eta afarietan alkohola hartzea. 	



2. J ARDUERA-PROTOKOLOA DISEINATZEKO JARRAIBIDEAK

Kirolak EAEn hainbat azpistema ditu (eskola-kirola, unibertsitate-kirola, kirol federatua, etab.). Azpistema bakoitza dagokion kirol-organoen araudien eta prozeduren menpe dago: Heziketa-zentroa, Federazioa, Kluba, Udala, Aldundia, Eusko Jaurlaritza, etab.

Diziplinari dagokionez, eszenatoki horrek zaildu egiten du *Kirolean sexu-jazarpenei eta abusuei aurre egiteko jokaera-protokolo* bakarra garatu eta aplikatuko duen prozedura homogeneoa ezartzea. Izan ere, azpi-eremu guztietan aplika daitekeen bide penalaren garapenarekin alderatuta (1. eranskina), diziplina bideak kasuan kasuko garapen espezifikoa eskatzen du.

Ondorioz, dokumentuaren bigarren zati honetan, kirol-eremuan ematen diren sexu-jazarpenei eta abusuei aurre egiteko protokoloa garatzeko jarraibideak eskainiko dira. Ondoren, kirol-talde edo erakunde bakoitzak dagokion gune edo eremuan aplikatu beharko du protokoloa.

2.1. PROTOKOLOAN AGERTU BEHARKO LIRATEKEEN ATALAK

PRINTZIBIOEN DEKLARAZIOA

Erakunde bakoitzak emakumeek kirolean jasaten dituzten sexu-jazarpenei eta abusuei aurre egiteko jokaera-protokolo bat landu beharko du. Dokumentu horrek kirolarien duintasunaren kontra egiten duen edozein ekintza errefusatzen duen printzipioen deklarazio filosofikoa jaso beharko du, eta esplizituki, pertsona guztiek eremu seguru eta osasungarri batean kirol-jarduera burutzeko duten eskubidearen aurkako jarrera guztiak.

Adibide gisa, dokumentu bat idatz liteke ondoko terminoak erabiliz:

Kirolean ematen den sexu-jazarpena eta abusua emakumeen kontrako indarkeria forma bat da, zeinaren bidez, duintasuna, osotasun fisiko eta morala eta sexu-askatasuna bezalako oinarrizko eskubideak urratzen diren. Gainera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko eragozpen handienetakoa da.

Espainiako Konstituzioaren eta Nazioarteko Batzorde Olinpiarraren arabera, aipatutako giza eskubideak besterenezinak dira. Kirolean ematen diren Sexu-jazarpen eta Abusuari buruz idatzitako Kontsentsuzko Aitorpenaren bidez, kirola, eremu seguru eta osasungarriago bihurtu nahi dute, eta, aldi berean, emakume kirolarien osasuna eta babesa hobetu nahi da.

Horregatik guztiagatik, (taldea, federazioa, ikastetxea, etab.)-en izenean sinatzen dugun pertsonok, irmoki aitortzen dugu gure erakundearen ez dugula emakumeen kontrako indarkeriarik onartuko.

Are gehiago, emakumeen kontrako indarkeriaren eta berdintasunaren gaineko araudian oinarrituta, eta emakume kirolariak sexu-jazarpen eta abusuz libre dagoen kirol-eremu batez disfrutatzeko duten eskubidea kontuan hartuta, ondoko konpromisoak hartu ditugu Protokolo honen bitartez:

- Kirolean ematen diren sexu-jazarpen eta abusuen prebentziorako metodo bat ezartzea.
- Bermeak jartzea, kirol erakundeari lotutako pertsona guztiek Protokoloa ezagut dezaten.
- Saiatzea kirol-erakundearekin erlazioa duten pertsona, enpresa, erakunde eta instituzio guztiek kirol-erakundearen konpromisoa ezagut dezaten, eta emakumeen kontrako sexu-jazarpena eta abusua errotik kentzeko eta prebenitzeko neurriak hartzen dituzten.
- Aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak konpon daitezzen, ahalik eta azkarren eta ahalik eta eraginkortasun handienarekin, eskura dituzten baliabide guztiak jartzea.
- Sexu-jazarpena edo abusua pairatu duten biktimak edo salatu dituzten hirugarren pertsonak babesteko neurriak hartzea.
- Kirolean ematen diren sexu-jazarpenak edo abusuak errotik kentzeko prestakuntza egokia ezartzea.

Azken finean, ongizatea eta osasun egokia edukitzeko emakume kirolari, langile, zuzendari, mediku, teknikari, arbitro eta gainontzekoek burutzen dituzten kirol-jarduerak praktika egokietan oinarrituta garatzen saiatzeko konpromisoa hartzen dugu.

EREMU APLIKAGARRIA

Erakunde bakoitzak garatuko duen protokoloa zein azpi-eremutan aplikatuko duen zehaztu beharko du, baita ere kirolean emakumeen kontra ematen diren faltak tipifikatzeko eta sexu-jazarpena eta abusuarekin erlazionatutako salaketak argitzeko eskuduntza izango duen organoa zein izango den.

KIROL AZPI-EREMUA	DISZIPLINA ORGANOA	
Eskola kirola	Ikastetxeak Foru Aldundiak (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa) Eusko Jaurlaritza	
Kirol Federatua (68)	Estatu mailakoa Erkidego mailakoa Lurraldekoa	Kirol-modalitate bakoitzeko federazioa
Unibertsitate kirola	Unibertsitate barruko lehiaketa	Unibertsitate bakoitza (69)
	Unibertsitate arteko lehiaketa	Lehiaketa motaren edo norainokoaren araberakoa (70)
Beste batzuk (71)	Kasuaren araberakoa	

MARCO NORMATIVO DE REFERENCIA

Cada entidad deberá señalar el marco normativo que ampara el desarrollo de un protocolo que ayude a combatir el acoso y el abuso sexual en el deporte y ajustarse a dicho marco normativo.

(68) Diziplina-organoa talde edo kirolari bakoitza lehiatzen den eremu geografikoaren eta kirol-modalitate bakoitzaren diziplina-komite espezifikokoaren menpe egongo da.

(69) Mondragon Unibertsitatea; Deustuko Unibertsitatea; UPV/EHU.

(70) Erkidegokoa, nazionala, edo informala.

(71) Liga profesionalak (arraunetako TKE, pilota) eta kirol ez profesionala edo amateurra (herri-lasterketak, zeharkaldiko igeriketa, zikloturisten lasterketak, etab.) nahasten ditu.

ERREFERENTZIAZKO ESPARRU-ARAUDIA

Erakunde bakoitzak kirolean ematen den sexu-jazarpen eta abusuari aurre egiten lagunduko dion protokoloari dagokion esparru-araudia zein den finkatu beharko du, eta horren arabera izan beharko du.

BERME-PROZEDURA

Kirolean gertatzen diren sexu-jazarpen eta abusu egoeretan eman beharreko berme-prozedura salaketa jartzen den une beretik argitzen den arteko prozesua da. Erakunde bakoitzak protokoloan definituta eduki beharko du aplikagarri den berariazko eremuan aipatu prozesua (72) nola garatuko den.

Erakundeak egin behar duen lehen urratsa isilpeko aholkulari bat edo bi izendatzea da; pertsona horiek kexa edo salaketa jaso eta prozedurari hasiera emango diote. Posible bada, gomendagarria da bata gizonetzkoa eta bestea emakumezkoa izatea. Ezingo balitz, hobe da emakume bat izendatzea. Edozein kasutan, berdintasun gaietan jantzia den pertsonak izan beharko du; konfidentzialtasuna bermatuko du, eta era autonomoan jarduteko zuzendaritzakoen babesa eta erakundeko gehiengoaren oniritzia izango du.

Prozesu horrek, hasiera batean, hiru fase ditu: salaketak aurkeztea, prozedura formala eta prozedura ez-formala. Hala ere, prozesua bigarren fasean konpon daiteke, burututako faltak arinak direnean eta inplikaturako aldean arteko akordioa dagoenean. Era berean, ondoko kasuetan prozedura bigarren faseetik pasatu gabe hirugarrenera zuzenean pasa daiteke:

- Burututako falta larria edo oso larria denean.
- Biktimak ez duenean egoki ikusten prozedura ez-formalera joatea.
- Biktima ez denean irtenbidearekin gustura gelditzen.
- Salatutako jarrerak errepikatu egiten direnean.

Bide penaletik auzitara eramateko duen eskubideaz gain, biktimak diziplina-ardurak eskatzeko salaketa formala planteatu ahal izango du. Berme-prozedurak irauten duen bitarte osoan konfidentzialtasuna bermatu beharko da.

Jarraian, fase bakoitzean eman beharreko urratsen zerrenda ematen da, adibide gisa:

(72) Lan eremuko berme prozedura hau hemen kontsulta daiteke: Emakunde (2011). Laneko sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkako protokoloa. Eskuragarri:

http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/pub_guias/eu_emakunde/adjuntos/sexu_jazarpenera_eta_jazarpen_sexista_ekiditzeko_protokoloa_eu.pdf

FASEA	PROZEDURAREN DESKRIBAPENA	
<p>1. Salaketak aurkeztea</p>	<p>Nork: sexu jazarpen edo abusuen biktima dela uste duten emakume kirolari guztiek, zuzendariak, teknikariak edo arbitroak. Sexu jazarpen edo abusu egoeraren bat ezagutzen duen edonork. Forma: idatziz edo ahoz. Non: Berdintasun Batzordean edo eskuduntza duen zuzendaritzako organoak horretarako izendatu duen pertsonaren aurrean. Isilpeko Aholkularia edo Isilpeko Aholkularitza izango da. Protokoloan pertsona edo batzorde horrekin harremanetan jartzeko formak zehaztuko dira; pertsona horiek berdintasun gaitan ezagutza izan beharko dute, eta, ahal izanez gero, emakumeak izango dira.</p>	
<p>2. Prozedura ez-formala</p>	<p>Informazioa batzea: Isilpeko Aholkularitzak prozedura ez-formalari hasiera emango dio salaketa egiazkoa dela konfirmatzeko. Helburua: estraofizialki arazoa konpontzea. Isilpeko Aholkularitzak salaketa jarri duenarekin eta salatu izan denarekin bilerak egingo ditu, banaka. Salatuari kexaren berri emango dio, jarrera iraingarriak jakinaraziko dizkio eta diziiplina-arduren berri emango dio. Salatu izan denak azalpenak eman ahal izango ditu. Gehienezko epea: zapi egun. Babesa: biktimari eta salaketa jarri duenari babesa emango zaie, egokitzen hartzen diren kautelazko neurriak eskainiz. Prozesuaren bukaera: kexaren konponbideari buruzko aldean arteko akordioa baldin badago, prozesuari bukaera emango zaio.</p>	
<p>3. Prozedura formala</p>	<p>Prozeduraren hasiera:</p>	<p>Nork: sexu jazarpen edo abusuen biktima dela uste duten emakume kirolari guztiek, zuzendariak, teknikariak edo arbitroak. Sexu jazarpen edo abusu egoeraren bat ezagutzen duen edonork. Forma: idatziz edo ahoz. Aldez aurretik prozedura ez-formala egon bada, salaketa formala idatziz aurkeztu beharko da. Ikerketa: Isilpeko Aholkularitzak salaketa egiazkoa dela ziurtatuko du - betiere, inplikaturik dagoen pertsonaren intimitate eta duintasun eskubidea errespetatuz-, eta, informazio guztia jaso ostean, biktimari salaketa sinatzeko eskatuko dio. Diziiplina organoari jakinarazpena: Isilpeko Aholkularitzak dagokion diziiplina-organuari egoeraren berri emango dio, kautelazko neurriak har ditzan. Neurri horiek inolaz ere ezin izango dira emakume kirolariak kirol-jarduera burutzeko dituen baldintzen kalterako izan. Berdintasun Batzordeari jakinaraztea: halakorik existituz gero, Isilpeko Aholkularitzak une horretara arte egindako urrats guztien berri emango dio.</p>
	<p>Prozedura:</p>	<p>Isilpeko Aholkularitzak salaketaren berri emango dio salatuari, eta salatuarekin eta salaketa jarri duenarekin (betiere azken horrek nahi badu) bilera bat egingo du, gertakizunei buruzko informazioa jasotzeko.</p>
	<p>Prozesuaren bukaera. Diziiplina neurriak handitzea:</p>	<p>Gehienezko epea: salaketa jarri denetik hamar egun. Babesa: salaketa jarri duten, ikerketan lekukotzat egin duten edo parte hartu duten pertsonen kontrako errepresaliarik ez gertatzea bermatuko da. Txostena: Isilpeko Aholkularitzak ikertutako kasuari buruzko txostena egingo du eta ateratako ondorioak aipatuko ditu, egoera larriagotu edo arindu ditzaketan baldintzak sartuz. Diziiplina neurriak ere proposa ditzake. Diziiplina organoak: dagokion emaitza emango du, falten tipifikazioaren eta ezarritako isunen arabera.</p>

FALTAK TIPIFIKATZEA

Protokoloak onargarriak ez diren jarrerak eta horien larritasun maila agertuko dituen falten tipifikazioa jaso beharko du, kasu bakoitzari dagozkion isunak aplikatu ahal izateko.

Ondoren tipifikazio adibide bat azaltzen da:

Falta **OSO LARRIAK** izango dira:

- Xantaia sexuala: emakume kirolariari hainbat kirol-sari edo abantaila eskaintzea, sexu-edukia duten mesedeak egitearen trukean, edo azken horrek ezezkoa emanez gero mehatxu egitea.
- Inguruaren sexu-jazarpena: sexu-edukiak edo eduki sexistak baliatuz, kirol inguru intimizatzailea, aurkakoa edo umiliagarria sortzea.
- Salaketak jartzen dituztenen, lekukotza ematen dutenen edo jazarpenen kontrako ikerketetan laguntzen dutenen kontrako errepresaliak hartzea.
- Norberak edo hirugarrenek jasan dezaketen edozein sexu-jazarpen edo abusu jarreraren kontra egiten duten pertsonen aurkako errepresaliak hartzea.
- Eraso fisikoa suposatzen duten ekintza guztiak.
- Delitu izan daitezkeen ekintza guztiak.

Falta **LARRIAK** izango dira:

- Gehiegizko kontaktu fisikoa edo ezegokia: nahi ez diren gorputz-kontaktuak, besarkadak, estutzeak eta hurbiltasun fisikoak.
- Toki pribatuetan emakume kirolariak behatzea: aldageletan eta komunetan.
- Gehiegizko behaketa eta behaketa jarraitua ahalbidetzen duten jarrerak.
- Keinu lizunak.
- Bakarkako entrenamenduak baliatuz, adingabeko emakume kirolaria isolatzea.
- Emakume kirolariari eta bere errendimenduari buruzko deskalifikazio publikoak eta etengabeak egitea.
- Emakume kirolariaren aspektu fisikoari, ideologiari edo sexu-aukerari buruzko komentario etengabeak eta laidogarriak.
- Ezinegona eta aurkako giroa sortzen duten adierazpen erasokorrak.
- Agindu laidogarriak.
- Emakume kirolaria hitzez erasotzea, beldurra eragitea edo behatzea.
- Beldurra eragiten eta botere abusua adierazten duten oldarkortasunez beteriko adierazpenak.

- Emakume kirolariaren gorputz-aspekturen bati buruzko mespretxuzko komentarioak.
- Emakume kirolariaren janzkerari eta txukuntzeko erari buruzko mespretxuzko komentarioak.
- Adierazpenak, txantxak eta iritzi homofoboak, bai izaera orokorrekoak bai emakume kirolariaren sexu-orientazioari buruzkoak.
- Sexu-izaera duten proposamenak baliatuz hitzez beldurraraztea.
- Gonbidapen lizunak edo konprometigarriak.
- Sexu-konnotazioa duten ziriak edo biraoak.

Falta **ARINAK** izango dira:

- Emakumeak oro har barregarri uzten dituzten komentarioak.
- Emakume kirolarien jarduera barregarri uzten edo zalantzan jartzen dituzten komentario sexistak.
- Emakume kirolariaren gorputzeko ezaugarriren bati edo aspektuari buruzko komentario ezegokiak.
- Emakume kirolariaren janzkerari edo apaintzeko erari buruzko komentario ezegokiak.
- Hitz lizunak, biraoak edo sexu-izaerakoak eta sexistak.
- Sexu-edukia duten txantxak, burlak edo txiste desatseginak.
- Hitz zikinak eta biraoak erabiliz, zuzenketa taktiko eta tekniko zakarrak.
- Sexu-izaera duten komentarioak ordezkatzeko edo laguntzen dituzten keinu eta mugimendu lizunak.
- Begirada lizunak eta etengabekoak.
- Sexu-konnotazioa duten txistuak.
- Sexu-edukia duten irudi pornografikoak edo tramankuluak erakustea.
- Emakume kirolariekin filma erotikoak edo pornografikoak ikustea, edo uztea.
- Emakume kirolariei mezu ezegokiak bidaltzea.
- Sare sozialak erabiliz nahi ez den jarraipena egitea.
- Etengabe *dei galduak* egitea.
- Sexu-edukia duten mezu-elektronikoak bidaltzea.

Baldintza larrigarriak

Beti ere, baldintza larrigarri kualifikatuak izango dira: hierarkiazko nagusitasun-egoera baliatuta egiten diren abusuak, edota biktimak konponbide prozedura guztiak erabili ostean, honen kontrako jarrera iraingarriak errepikatzea. Alebosia ere larrigarria izango da (hau da, entrenatzailearen ukigabetasuna ziurtatzera doazen bitarteko, forma edo erak erabiltzea).

Baldintza larrigarri kualifikatua izango da:

- Hierarkiazko nagusitasun-egoera baliatuta egiten den abusia.
- Biktimak konponbide prozedura guztiak erabili ostean, horren kontrako jarrera iraingarriak errepikatzea.
- Alebosia larrigarria izango da: entrenatzailearen ukigabetasuna ziurtatzera doazen bitarteko, forma edo erak erabiltzea.

Baldintza aringarriak

- Bere espedientean zigorrik ez agertzea.
- Bat-bateko damuen bitartez, faltaren efektuak arintzen edo konpontzen saiatzea, iraindutako pertsona asetzen ahalegintzea edo gertakizuna aitortzea.

BIKTIMEI INFORMAZIOA EMATEA

Erakunde bakoitzak biktimei laguntza emateko bere eremuan aplika daitezkeen baliabide publikoak identifikatu beharko ditu, eta protokoloan agertu beharko ditu harremanetarako helbide elektronikoak edo telefono zenbakiak, beraietara jo ahal izateko.

2.2. BESTE GAKO BATZUK

ZABALKUNDEA ETA TREBAKUNTZA

Garrantzitsua da kirol-erakunde batekin erlazioa duten pertsona guztiek protokoloa ezagutzea. Gainera, saiakera egingo da, kirol erakundearekin harremana duten pertsona, enpresa, erakunde eta instituzioek beren konpromisoa ezagut dezaten, eta emakumeen kontrako sexu-jazarpen eta abusua errotik kentzeko eta babesean inplika daitezten. Protokoloaren zabalkundea erakundeak ohikoak dituen hedabideen bitartez egingo da: zirkularrak, aldizkariak, iragar-ki-taulak, internet (web orrialdea, intranet, plataforma digitalak, etab.). Zabalkunde dokumentuan isilpeko Aholkularitzaren helbidea eta izena agertuko dira.

Kirol erakundeak berdintasun arloan trebakuntza egokia eskainiko du: emakumeen kontrako indarkeriarekin erlazionatutako gaietan, emakume kirolarien osasun integralari buruz, afektibitateari eta sexuari buruz, kirolean sexu-jazarpen eta abusuak jasateari buruz, entrenatzaile-arekiko harreman dualei eta beren ondorioei buruz, etab.

Kirol erakundeak kirolean gertatzen diren sexu-jazarpenak eta abusuak errotik kentzeko informazio eta trebakuntza politika bat izango du. Azken finean, kirol erakundeak bermatu beharko du emakume kirolari, langile, zuzendari, mediku, teknikari, arbitro eta gainontzekoek burutzen dituzten kirol-jarduerak lagungarriak izango direla ongizatea eta osasun egokia edukitzeke.

SINADURA

Protokoloak, aplikagarri izango den eremuan inplementatzeko konpromisoa hartzen duten erakundeko arduradunen sinadura eduki beharko du:

.....-(e)n,-(e)ko-(a)ren-(a)n.


Sinadurak:

Erakundearen izenean

Alde sozialaren izenean (egonez gero)

PROTOKOLOA ERAKUNDEAREN ARAUDIAN SARTZEA

Inplementazioa bermatzeko, protokoloa erakundearen araudiari gehitu beharko zaio.



3. **D**OKUMENTAZIOA

3.1. BIBLIOGRAFIA

Antúnez, M. (2009). Kirola. Beren Kantxa propioan indarkeria ezkutatzen duten podiume-na. Genero eta Feminismoari buruzko Azterketen gaineko I. CINIG Jardunaldietan aurkeztuta-ko Ponentzia. Teoriak eta Politikak: Bigarren sexutik gaur egungo eztabaidetara, Generoari bu-ruzko Ikerketen Diziplinarteko Zentroak eta Humanitate eta Giza Zientzietan Ikerketa Zentroak antolatua, FaHCE, UNLP - CONICET. La Plata (Argentina), 2009ko urriaren 29an eta 30ean.

<http://jornadascinig.fahce.unlp.edu.ar/i2009/eje6/Antunez.pdf> (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Brake, D. (2010). Getting in the game. Title IX and the women's sports revolution. New York and London: New York University Press.

Chroni, S. et al. (2012). Prevention of sexual and gender harassment and abuse in sports. Initiatives in Europe and beyond. Frankfurt: Deutsche Sportjugend.

Emakumea eta Kirola Batzordea (Espainiako Batzorde Olinpiarra) (2007). NBO-k kirolean sexu-jazarpena ematen dela onartzen du.

http://www.mujerydeporte.org/articulos/ver_articulo.asp?Id_noticia=132&Titulo_not=El+COI+admite+que+hay+acoso+sexual+en+el+deporte+de+%E9lite (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Kirol Batzorde Nazionala (Ferro, S., Azurmendi, A. eta Leunda, G.) (2012). Kirol Federazioen kudeaketan berdintasuna txertatzeko gida.

<http://publicacionesoficiales.boe.es/detail.php?id=002200812-0001> (Kontsulta: 2014ko ekai-na).

Consell Català de l'Esport (2005). Sexu-jazarpena kirolean. Pertsona helduentzako gida. [Finlandiako Kirol Federazioak, 2002an argitaratutako jazarpinari buruzko Gidaren itzulpena, 2002.]. <http://www.igualdad.ull.es/archivos/documentacion/gu%C3%ADa%20para%20prevenir%20el%20acoso%20sexual%20en%20el%20deporte.pdf> (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Décamps, G. y Zurc J. (2012). "Detection and prevention of sexual harassment and violence in sport", en: Chroni, S. et al, Prevention of sexual and gender harassment and abuse in sports. Initiatives in Europe and beyond. Frankfurt: Deutsche Sportjugend.

De Frantz, A. L. (2013). Eliminating and preventing violence against women and girls through sport. International Olympic Committee, 57th Session of the Commission on the Status of Women, 4-15 March.

<http://www.olympic.org/news/eliminating-and-preventing-violence-against-women-and-girls-through-sport/194138> (Kontsulta: 2014ko kontsulta).

Emakunde (2013). EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI Plana. http://www.emakunde.euskadi.net./contenidos/informacion/u72_iv_plan/eu_emakunde/adjuntos/VIPlan_final_eu.pdf (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Emakunde (2011). Enpresetan eta erakunde pribatueta planak eta diagnostikoak egiteko metodologia.

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-igualorg/eu/contenidos/informacion/ig_org_enlaces/eu_material/adjuntos/metodologia-definitiva-web-eus.pdf (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Emakunde (2011). Lanean ematen den sexu-jazarpena eta sexista ekiditeko protokoloa.

http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/pub_guias/eu_emakunde/adjuntos/sexu_jazarpena_eta_jazarpen_sexista_ekiditzeko_protokoloa_eu.pdf (Kontsulta: 2014ko ekaina).

European Comission (2014). Gender Equality in Sport. Proposal for Strategic Actions 2014-2020. http://ec.europa.eu/sport/events/2013/documents/20131203-gender/final-proposal-1802_en.pdf (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco (2013). Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetzeta_plana_e.pdf (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Fasting, K. (2012). What do we know about sexual harassment and abuse in sport in Europe. Europako Kongresuan aurkeztutako ponentzia: "Safer, better, stronger! Prevention of Sexual Harassment and Abuse in Sport. Berlín, 2012ko azaroak 20-21.

Fasting, K. et al. (2004). Prevalence of sexual harassment among Norwegian female elite athletes in relation to sport type. *International Review for the Sociology of Sport*, 34, 4, 373-386 or.

[http://bura.brunel.ac.uk/bitstream/2438/527/4/IRSS%2Bsport%2Bgroups%2B\(revised%2B15.3.04\).pdf](http://bura.brunel.ac.uk/bitstream/2438/527/4/IRSS%2Bsport%2Bgroups%2B(revised%2B15.3.04).pdf) (Kontsulta: 2014ko ekaina).

International Olympic Comitee (2007). IOC Consensus Statement on "Sexual Harassment & Abuse in Sport". http://www.olympic.org/assets/importednews/documents/en_report_1125.pdf (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Marks, S. et. al. (2011). Sexual harassment and abuse in sport: the role of the team doctor. *British Journal of Sports Medicine*, 46, 905-908 or.

<http://bjsm.bmj.com/content/46/13/905.full.pdf+html> (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Martín, Montserrat y Juncà Albert (2014). Sexu-jazarpema kirolean: Katalunian Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietako graduko emakume ikasle-kirolarien kasua. Apunteak. Gorputz eta Kirol Hezkuntza, 115, 1, 72-81 or.

<http://www.revista-apunts.com/es/hemeroteca?article=1627> (Kontsulta: 2014ko ekaina).

Norwegian Olympic and Paralympic Committee and Confederation of Sports (2010). Guidelines to prevent Sexuell Harassment and Abuse in Sport. Eskuragarri:

http://www.idrett.no/tema/lover/retningslinjer/Documents/BROSJYRE_seksuell%20trakasering_ENGELSK_WEB.pdf (Kontsulta: 2014ko ekaina).

ARAUDIA

BOE. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako. BOE, 71, 2007ko martxoaren 23a.

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/23/pdfs/A12611-12645.pdf>

BOE. 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, Hiritarren Segurtasun, Etxeko Indarkeria eta Gizartean Atzerritarren Integrazio gaietarako Neurri Konkretuen gainekoa. BOE, 234, 2003ko irailaren 30ekoa. <https://www.boe.es/boe/dias/2003/09/30/pdfs/A35398-35404.pdf>

BOE. 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25koa, Kode Penalaren 10/1995 Lege Organikoa, irailaren 23koa, aldatzen duena. BOE, 283, 2003ko azaroaren 26koa. <http://www.boe.es/boe/dias/2003/11/26/pdfs/A41842-41875.pdf>

BOE. 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindu arautzailea. BOE, 183, 2003ko abuztuaren 1ekoa.

<https://www.boe.es/boe/dias/2003/08/01/pdfs/A29881-29883.pdf>

BOE. 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Kode Penalarena. BOE, 281, 1995eko azaroaren 24koa. <https://www.boe.es/buscar/pdf/1995/BOE-A-1995-25444-consolidado.pdf>

EHAA. 39/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa: II. Kapituluak, Arau-hausteak eta zehapenak. EHAA, 4118, 2013ko irailaren 30a. <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/eu/bopv2/datos/2013/09/1304118e.pdf>

EHAA. 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol federazioetakoa. EHAA. 31, 2006ko otsailaren 14koa. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2006/02/0600767a.pdf>

EHAA. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. EHAA, 42, 2005eko martxoaren 2a. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

EHAA. 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena. EHAA, 118, 1998ko ekainaren 25a. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1998/06/9802891a.pdf>

Gomendioa R (92) 14 REV (2011ko maiatzean birpasatua) Europako Kontseiluko Estatu Kideen Ministro Kontseiluaren Kirol-Kode Etikoari buruzkoa.

http://www.coe.int/t/dg4/epas/resources/texts/Rec%2892%2914rev_en.pdf

2009ko azaroaren 26ko Europako Parlamentuaren Ebazpena, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteari buruzkoa.

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2009-0098+0+DOC+XML+V0//ES>

Europako Parlamentuaren 2002/2880/INI Ebazpena, emakumeak eta kirolari buruzkoa. <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?type=REPORT&reference=A5-2003-0167&language=ES>

1 Ebazpena. Beijingeko Adierazpena eta Plataforma. Nazio Batuen Erakundea Emakumeari buruzko IV. Mundu-Konferentzian.

<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/BDPfA%20S.pdf>

WEB ORRIALDEAK

Nazioarteko Batzorde Olinpiarra: www.olympic.org

— Definizioak: <http://www.olympic.org/sha?tab=what-is-sha>

— Sexu-jazarpen eta abusu gaietan sentsibilizatzeko bideoak:
<http://sha.olympic.org/home.html>
(Kontsulta: 2014ko ekaina).

Kirol Batzorde Kontseilua: www.csd.gob.es

— Hurrek kirolean jasandako sexu-abusuen prebentziorako Seminarioa:
<http://www.csd.gob.es/csd/salud/seminario-sobre-prevencion-del-abuso-sexual-infantil-en-el-deporte/>
(Kontsulta: 2014ko ekaina).

— Protocolo para la prevención, detección y actuación frente al acoso y al abuso sexual en el CAR de Madrid.
<http://www.csd.gob.es/csd/estaticos/noticias/Triptico-Abusos-1.pdf>
(Kontsulta: 2014ko ekaina).

NBE Emakumeak:

- Sexu-jazarpena kirolean: Emakume eta nesken kontra ematen den indarkeriari amaiera emateko Ezagutza Zentro Birtuala:
<http://www.endvawnow.org/es/articles/30-sexual-harassment-in-sport.html>
(Kontsulta: 2014ko ekaina).

3.2. LOTURA INTERESGARRIAK

Kirolean sexu-jazarpena eta abusua. Nazioarteko Batzorde Olinpiarra.

<http://www.olympic.org/sha?tab=what-is-sha>

Kiroleko sexu-jazarpena. NBE Emakumeak. Emakume eta nesken kontrako indarkeriari amaiera emateko Ezagutarako Zentro Birtuala. .

<http://www.endvawnow.org/es/articles/30-acoso-sexual-en-el-deporte.html>

Sexu-jazarpena eta sexu-harremanak gizon entrenatzaileen eta gainontzeko kirol arloko langileen eta emakume kirolarien artean. Women's Sports Foundation-en (Estatu Batuak) jarrera.

http://www.womenssportsfoundation.org/en/home/advocate/title-ix-and-issues/title-ix-positions/sexual_harassment

Emakume eta gizon kirolariekiko hitzeko jazarpenari, fisikoari edo psikologikoari nola aurre egin. Women's Sports Foundationen jarrera (Estatu Batuak).

http://www.womenssportsfoundation.org/home/advocate/title-ix-and-issues/title-ix-positions/verbal_psychological_physical_abuse

Kirolean ematen den sexu-jazarpenari eta abusuari buruzko liburuxka. Women Sport International.

http://www.sportsbiz.bz/womensportinternational/taskforces/harassment_brochure.htm

Kirolean ematen den sexu-jazarpenari buruzko gida. Finlandiako Kirol Federazioa (Consell Català de l'Esport-ek itzulua)

<http://www.igualdad.ull.es/archivos/documentacion/gu%C3%ADa%20para%20prevenir%20el%20acoso%20sexual%20en%20el%20deporte.pdf>

Kirolean ematen den sexu-jazarpenaren prebentziorako gida. Norvegiako Batzorde Olinpiarra.

http://www.idrett.no/tema/lover/retningslinjer/Documents/BROSJYRE_seksuell%20traksering_ENGELSK_WEB.pdf

Safe 4 athletes. Kirol-eremu segurua eta sexu-jazarpen eta abusetatik librea bermatzea helburu duen irabazi asmorik gabeko erakundea. Gailu mugikorretan deskargatzeko aplikazioa dauka.


<http://safe4athletes.org/>

Sexu-jazarpen eta abusuei buruz sentsibilizatzeko bideoak. Nazioarteko Batzorde Olinpiarra.

<http://sha.olympic.org/home.html>

Sexu-jazarpen eta abusuei buruz sentsibilizatzeko bideoak. Entrenatzaileen rola. Norvegiako Batzorde Olinpiarra.

<http://www.idrett.no/english/Sider/The-role-of-the-coach.aspx>



4. **E**RANSKINAK

1. ERANSKINA

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa (73).

VIII. Titulua. Sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak, I. Kapitulua. Sexu-erasoei buruz dio:

178. art. "Norbaitek, indarkeriaz edo larderiaz, beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurka atentatu egiten badu, orduan, sexu-erasoaren erantzule gisa, urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio".

179. art. "Sexu-erasoa maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzen denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gauzak sartzea denean, erantzuleari, bortxaketaren errudun gisa, sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio".

180. art. "1. Aurreko jokabideei lau urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie 178. artikuluko erasoak badira, eta hamabi urtetik hamabost artekoa 179. artikulukoak badira, inguruabar hauetako bat gertatzen denean: 1.) Erabilitako indarkeria edo larderia bereziki apalesgarria edo isekagarria denean. 2.) Egitateak pertsona bik edo gehiagok taldean gauzatzen dituztenean. 3.) Biktima, bere adin, gaixotasun edo egoera dela eta, bereziki, pertsona ahula denean, eta, edozein kasutan, hamahiru urte baino gutxiago dituztenean. 4.) Nagusitasun- edo senidetasun-harremanez baliatzen denean erantzulea delitu egiteko, odolez edo adopzioz biktimaren aurreko, ondorengo edo neba-arreba izateagatik, edota ezkonsenidetasuna izateagatik. 5.) Egileak armak edo arrisku bereko bideak erabiltzen dituztenean, heriotza edo 149 eta 150. artikuluetan ezarritako lesioetatik bat eragin dezaketenetarikoak, eragindako heriotza edo lesioengatik dagokion zigorrari kalterik egin gabe".

2. "Aurreko inguruabarretako bi edo gehiago pilatzen badira, artikuluko honetako zigorrak goiko erdian ezarriko dira".

(73) Eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/pdf/1995/BOE-A-1995-25444-consolidado.pdf>

II. Kapitulua. Sexu-abusuei buruz dio:

181.1 art. "Norbaitek, indarkeria, larderia eta adostasunik gabe, beste pertsona baten sexu-askatasun edo ukigabetasunaren aurka atentatu egiten duten egitateak gauzatzen baditu, sexu-abusuaren erantzule gisa, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra edo hemezortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio".

2. "Aurreko paragrafoaren ondoretarako, adostu gabeko sexu-abusutzat hartuko da konorterik gabe dauden pertsonen aurkakoa edo euren buru-nahasteaz abusatuz gauzatzen dena, baita ere horretarako botikak, drogak edo beste substantzia natural edo kimikoak erabiliz biktimaren gogoia ezeztatzen denean gauzatzen dena".

3. "Erantzuleak biktimaren adostasuna lortzen badu, biktima horri askatasuna murrizten dion nagusitasun-egoera nabariaz baliatuz, orduan, erantzuleari zigor berbera ezarriko zaio".

4. "Aurreko artikulua kasu guztietan, sexu-abusua maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gauzak sartzea denean, erantzuleari lau urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio".

5. "Artikulu honetako zigorrak goiko erdian ezarriko dira, kode honen 180. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako 3 edo 4. inguruabarra gertatzen bada".

182_1 art. "Norbaitek, engainuaren bidez, hamahiru urtekoa baino nagusiagoa eta hamaseikoa baino gazteagoa den pertsona bati sexu-abusua egiten badio, orduan, urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio".

2. "Sexu-abusua maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gauzak sartzea denean, bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da. Zigor hori goiko erdian ezarriko da, kode honen 180.1 artikuluan ezarritako 3 edo 4. inguruabarra gertatzen bada".

II. Kapituluia BIS. Hamahiru urte baino gutxiago dutenei egindako sexu-erasoei eta sexu-abusuei buruz dio:

183. 1 art. "Norbaitek hamahiru urtetik beherakoa den pertsona baten sexu-uki-gabetasunaren aurka atentatu egiten badu, orduan, adingabeko baten aurkako sexu-jazarpenaren erantzule gisa, bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio".

2. "Erasoa indarkeriaz eta beldurra eraginez egin bada, adingabeko baten aurkako sexu-erasoaren erantzule gisa, bost urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio".

3. "Sexu-abusua maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gauzak sartzea denean, zortzi urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko da 1. paragrafoan ezarritako kasuetan, eta hamabi urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra artikuluan honen 2. paragrafoko kasuetan".

4. "Aurreko hiru zenbakietan aurreikusitako portaeren kasuan, espetxealdi-zigor hori goiko erdian ezarriko da, jarraian zehazten diren inguruabarretako bat gertatzen bada: a) Biktima, garapen intelektual edo fisiko urria duelako, erabateko babesgabetasun egoeran aurkitu denean, eta betiere lau urte baino gutxiago dituenean. b) Gertaeretan bi pertsonak edo gehiagok batera parte hartu dutenean. c) Eragindako indarkeria edo beldurraraztea bereziki umiliagarria eta iraingarria denean. d) Erantzuleak delitua burutzeko nagusitasun- edo ahaidetasun-erlazioa baliatu duenean, biktimaren aurreko ahaidea, edo neba-arreba, izatez edo adopzioz, edo bestelako ahaidea izanda. e) Delitugileak adingabearen bizitza arriskuan jarri duenean. f) Arau-haustea antzeko jarduerak burutzen dituen erakunde edo talde kriminal baten barruan egin denean. 5) Artikulu honek aurreikusitako kasu guztietan, errudunak haren autoritatea, edo honen agente, edo funtzionario publiko izatea baliatu duenean, gainera, sei urte eta hamabi arteko desgaitasun absolutua ezarriko zaio honi".

183 bis. art. "Norbaitek internet bidez, telefonoz edo informaziorako beste edozein teknologia baliatuz hamahiru urtetik beherako adingabe batekin harremanetan jarri, eta, 178 eta 183 arteko artikuluetan eta 189. artikuluan adierazitako delituak burutzeko elkartzeko bat adosten badu, eta betiere proposamenari elkartzeko hori gauzatzera bideratutako ekintza-materialek laguntzen badiote, urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, betiere burututako delituei dagozkien zigorrak baztertu gabe. Zigor horiek goiko erdian ezarriko dira hurbiltzea bortxaz, beldurraraziz edo engainu bidez egiten denean".

III. Kapituluua. Sexu-jazarpenari buruz dio:

184. 1 art. "Norbaitek berarentzat edo beste batentzat sexu-mesedeak eskatzen baditu, berarentzat zein hirugarren batentzat, laneko, irakaskuntzako edo zerbitzu-eskaintzako harreman jarraitu edo ohikoen eremuan, eta jokabide horrekin biktima jartzen badu larderiako, etsaigoko edo umilazioko egoera objektibo eta larrian, orduan, pertsona horri, sexu-jazarpenaren egile gisa, hiru hilabetetik bost arteko atzipenaldi-zigorra edo sei hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaio".

2. "Sexu-jazarpenaren errudunak egitatea gauzatu badu, laneko, irakaskuntzako edo hierarkiako nagusitasun-egoeraz baliatuz, edo biktimari, esanbidez edo isilbidez, harreman horien inguruan izan ditzakeen bidezko igurikimenei kalte eragingo diela mehatxu eginez, orduan, bost hilabetetik zazpi arteko atzipenaldi-zigorra edo hamar hilabetetik hamalau arteko isuna ezarriko zaio".

3. "Biktima, bere adin, gaixotasun edo egoera dela eta, bereziki ahula denean, bost hilabetetik zazpi arteko atzipenaldi-zigorra edo hamar hilabetetik hamalau arteko isun-zigorra ezarriko da 1. paragrafoan ezarritako kasuetan, eta sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra artikuluko honen 2. paragrafoko kasuetan".

2. ERANSKINA

4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA , EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKOA.

25. artikulua, kultura-jarduerei buruzkoa baita, hau dio:

25. art.- 2. "Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonek tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko".

Lege berak, 43. artikuluan -Jazarpen sexista, IV. Kapituluari, Lana, 2. Atala, Enplegua- hau dio:

43 1 art. "Delitu modura izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, lege honen ondoretarako, jazarpen sexista hau izango da: lanean, nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada. Jokabide horrek sexuarekin zerikusia duenean, sexu-jazarpena izango da".

2. "Jazarpen sexista diziplinako hutsegite oso larria izango da euskal herri-administrazioetako langileen kasuan, lege honetako 2.1 artikulua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 83.b) artikuluari dagokionez, ezartzen duenarekin bat".

3. "Euskal herri-administrazioek ofizios jardungo dute jazarpen sexista salatzen denean. Era berean, lanean jazarpen sexista prebenitzeko eta erazteko politikak jarri behar dituzte abian, beren langileei zuzenduta. Politika horiek, beste neurri batzuen artean, jarduketa-protokolo batzuk prestatzea eta aplikatzea aurreikusi beharko dute".

4. "Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, laguntza juridiko eta psikologiko urgentea, doanekoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatu behar diete jazarpen sexistaren biktima direnei".

(74) 4/2005 Legea, otsailaren. 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. I. Kapituluari-Parte-hartze soziopolitiko, 25. artikulua- Kultura-jarduerak, 2. paragrafoa.

Eskuragarri: <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

V. Kapitulua. Beste gizarte-eskubide oinarriko batzuk, dio:

44. 2 art. "Autonomia Erkidegoko Administrazioak emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna bermatu behar du osasunarekin zerikusia duen ikerkuntzan eta arretan. Horretarako, aintzat hartuko du gizonen eta emakumeen dituzten egoerak, baldintzak eta beharizanak desberdinak direla, eta, ondorioz, politika espezifikoak garatuko ditu beharrezkoa denean. Bestalde, azterketa, eztabaida eta kontzientziak suspertu behar du profesionalen, erabiltzaileen eta osasun-sistemarekin zerikusia duten eragile artean eremu horretan emakumeen eta gizonen dituzten desberdintasunei buruz".

VII. Kapitulua. Emakumeen aurkako indarkeria. Bertan, ikerketa, prebentzioa eta prestatzea aipatzen dira:

51. art. "Euskal herri-administrazioek emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinen arrazoiak, ezaugarriak, arazoa identifikatzeko zailtasunak eta ondorioak iker daitezkeen sustatuko dute. Era berean, indarkeria horiek erazteko eta horien ondorioak konpontzeko aplikatzen diren neurrien eraginkortasuna iker dadin ere bultzatuko dute".

52. art. "...euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan eta modu koordinatuan, sentsibilizazio-kanpainak egin behar dituzte emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko".

53. art. "Euskal herri-administrazioetan langileak prestatzeko eskumena duten erakundeek, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan, emakumearen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzen duten langileek prestatzaren arloan dituzten beharizanen diagnosis egin behar dute, eta aldian-aldian eguneratu; eta diagnosi horren arabera profesional-taldeek dituzten beharizanei egokitzeko prestatzea programak jarriko dira abian".